

TOKIKOM

2011ko apirila | 103. zenbakia

ai!r!

txorierriko aldizkaria



Gautxorien habia



ganix



Zapatak
Arropa
Osagarriak
Nazioarteko markak



Txorierri etorbidea, 9-10. lokala
(Arteaga erainia)
48160 DERIO
94 454 20 13
www.ganix.com



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarleen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47
aikortxori@aikor.com / www.aikor.com

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Bestorrene, Maite Lekerika, Iñaki Suarez, Gaizka Eguskiza, Pospolin, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Nekalur, Aner Mentxaka, Urko Lasarte, Jesús Lagunas, Iñaki Aranguiz, Juanjo Fernández Imaz, Nagore Sustatxa, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra, Indra Murugarren, Bestorrene, Oihana Astobieta, Belen Gana eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Etxeraino

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 6.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**



diruz lagundutako aldizkaria



12 Inés Bengoa



27 Derioko jaiak



36 Korrika 17, Txorierrin

- 4** Zalaa Jakaren omenez
- 6** Laburrak eta albisteak
- 12** Gurean izan da... Inés Bengoa
- 15** Gaztea eta... Hakima Vélez
- 16** Julen Laruzea
- 18** Bertokoren urteurrena
- 20** Euskal Herriko Dantzarien Eguna
- 22** Salamandra puba
- 27** Derioko jaiak
- 32** Etxetxuak, zuhaitzetan
- 36** Korrika 17, Txorierrin
- 38** Elkarreak... Derioko literatura tailerra
- 40** Teknologia... Euskal gramatika, sarean
- 43** Aikorrizketan... Asko estudieu eta gitxi ikasi
- 44** Sukaldaritza
- 45** Denborapasa
- 46** Agenda

• PAKETERIA ZERBITZUA • BUZONEAKETAK • KARTEL IPINKETAK • MARKETIN ZUZENA • PUBLIZITATE BANAKETA •

TIPS@ ZAMUDION
Torrelarragoiti ind., P-7 B, 1. pab.
Tel.: 944-525 086
Fax: 944-525 088
sondika@tip-sa.com

ETXERAINO



© 943-59 29 50

DONOSTIA • BILBO • ANDOAIN • IRUN • ZAMUDIO

etxeraino@etxeraino.net



Beti izango zara, Zalo!

Ezin dogu sinistu! Oraindik ezin dogu etorkizuna imajinatu zu gure artean egon barik, zure planak, zure irria, zure indarra euskal kanta abesten, zure "bua chavall!", edota "basta ya!"... Egia esan, berba honek prestaten genbiltzala "baina hau... Zaloaren ardura zan!" komentaten genduan gure artean. Gure koadrilan bera zan "prentsa arduraduna", baita bozeroalea be askotan... bere berbakaz eta idazteko trebetasunagaz, berbak eta esaldiak goxotasunez laztanduz... eta hori gitxi bazan, euskeraz! Gure euskera maitean! Hainbeste maite eta hain ondo trataten zeuen gure hizkuntzan.

Koadrila Eguna, Tourrera gure osteratuak, koadrila bazkariak (Santo Bartolomeko paella, Larrabetzuko jaietako bazkaria, Goikoelexaldeko gure marmitakoa, urterik urte hobia zana...), koadrilako nesken barikuetako "batzartxua" aste barruko gorabeherak komentetako eta asteburuaz gozaten hasteko, etorkizuneko planak, bidaiak (Australia zenduan hurrengo helburu, orain dala 15 egun koadrilakoakaz Londresen egon ostean)... Zenbat gauza! Zenbat alaitasun eta momentu polit biziko genduzan zure ondoan! Eta orain... Zin egiten deusugu egongo dirala, eta inoiz baino gehiago zu gugaz egongo zarala! Halan baino ezin da izan... Gure koadrilaren bizitzea, denporea pasa ahala, tinko mantenduko dan zureganako omenaldia izango da!

Asko ikasi dogu zure alboan, asko gozatu... Zenbat opari zure ondoan bizitzeko aukerea izan dogunontzat! Gauzak pasino handiagaz egiten zenduzan... Zelako indarra! Hori bai energia! Eta, gainera, benetan barritagarria... amaitzen ez daretakoa! Aurrera joateko, gauza barriak ikusteko, munduko zirrikitu guztiak ikus-

Zaloe Jaka AIKOR! aldizkariaren kolaboratzaileak joan dan hilean itxi ginduzan, ustekabean eta oraindik oso gaztea zala, gaztegeia. Lerro honek irakurtzen zabilzen orrialdeotan Zaloaren berbak irakurri dozuez askotan, pil-pilean egozan han eta hemengo gaiak zorrotasunez eta abileziak aztertuz. Zaloa ez da gurean berriro azalduko, baina bere berbak, irribarrea, jarrera positiboa eta izaera, Zaloa bera, aldizkari honen parte izango dira betiko.

Lagunek eta senideek omenaldi hunkigarria egin eben apirilean Zaloaren omenez, Larrabetzun, bere herrian. Ekitaldian jentetza batu ginan, 150 lagun dinoe; jente askok maite zaitu Zaloa, ez da harritzekoa. AIKOR! aldizkariaren be omenaldi xumea egin gura deusugu, eta lerro honek eskaini. Berbak sobran dagoz batzuetan, baina gure beharra eta zurea komuniketea da, eta barruan dagoana zabalteko beharra dogu. Zagozan tokian zagozala, ez adiorik!

teko eta ezagutzeko irrika berezia, kultura, tokiak, hizkuntza... Baina beti zure herria, Euskal Herria eta Larrabetzu, bihotzeko tokirik xarmagarrienean izanda... Lagunok, adibide hori goiburutzat hartuta ekingo deusugu hemendik aurrera bidetari, bai! Hori izango da gure leloa, ...aldapa goratan eta baita bidea erraz bilakatzen danean, eguzki, euri, trumoi... dana dalakoa izandakoa be... hor egongo da! Eta nasai egon daitezkan zure lagunak, koadrilakoak, lanekoak, alderdikideak... zure testigua hartu dogu! Eta bidea ere-





giz egingo dogu aurrera, zu izango zara gure iparrorratza lainoa dagoanean; argia, iluntasunean; animoa, atsekabeen; freskotasuna, itoaldietan... bai, zeu izango zara Zalo!

Eskerrik asko, Zalo! Eta mila aldiz, eskerrik asko! Emon deuskuzun guztia-gaitik eta emongo deuskuzunagaitik... Beti egongo zara gure ondoan, gure koa-drilaren ekitaldi guztietan presente, gure bihotzean, gure pentsamentuan, gure eguneroko bizitzan... Eta ziur gagoz zu beti egongo zarala gugaz, zure indar,

kemena, irrika eta alaitasuna gure artean zabalduz... Eta, nasai! Zure testigua eskue-tan tinko hartu eta aurrera jarraituko do-gu zuzen eta alai, Zuk egingo zendukean moduan! Guk zainduko doguz zure eus-ker a maitea, Larrabetzu, gure aberria, Eus-kal Herria... zuk hain barnean zenduza-nak... Ez arduratu, zuk zabalduetako bidea-ri jarraituko deusagu! Eta beti izango ga-rra zure koadrila! Bihotz-bihotzez, mosu handi bat!

Koarilakoak

Telefona hartu eta "Aupa, AIKOR!" esaten zeunskun irribarrez. Beti, erantzun alai hori. Beti, jarrera ona. Behin baino gehiagotan lagundu deuskuzu: bai testuren bat idatzi behar zanean, bai Aikorlagun kanpaina zabaldu genduan. Kolaboratzaileak eta aikorlagunak: hareek dira AIKOR! aldizkariaren inguruan dagoan giza sarea osatzen dabena, gure funtsa, eta zu hareetako bat zinan, hareetako bat zara.

Euskereagaz eta euskalgintzeagaz izan dozun atxikimendua itzela izan da beti. Eta igarri-igarrian dago hori zure artikuluetan. Zeure beharra politikeagaz lotuta egon arren, danetariko gaiak jorratu dozuz zeure testuetan: gizarte zein kirol arlokoak; hemengoak nahiz kanpokoak. Euskera txukuna erabiliz, ikuspegi alai eta argitsu batetik emon deuskuzu errealidadearen barri.

Zaloa, joan zara, baina gogoan izango zaitugu beti, eta geure orrialdeotan egongo zara betiko.

"Aupa AIKOR!" erantzuten zenduan irribarrez. Aupa Zaloa!

AIKOR! aldizkariko langileak

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Aislamientos Derio Tabikeak

Pladurrezko sabaiak eta apalategiak
Sabai erregistragarriak
Isolamendu termiko eta akustikoa

Alartza Ibaia plaza, 6 - 48160 Derio
T: 670 497 928 - F: 944 541 121
www.aislamientosderio.com

aldeko hartz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unibe 7, beheko
48160 DERIO (Bizkaia)

-Especialitate guztiak zentro bakar batean
-Aurrekontua doan
-Especialitateak: umeak

eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO
Tel.: 94 454 52 88

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gaitolza 59 • Tel.: 94 455 51 00 • Fax: 94 455 61 77
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Elkarte berria, Sondikan

Maiatzaren 5ean, egunean, Iri-farrak sortuz, mugarik ez, elkarteak aurkeztuko dute Sondikako Kultur Etxean. Hura El Salvador herriari atxikimendua eta laguntza emateko sortu den elkarte da. Ekitaldia arratsaldeko 7etan hasiko da. Proiektuaren nondik norakoak bideo baten bitartez azalduko dituzte, eta, horren ostean, Txanpa Payés kantautoreak emanaldia eskainiko du. Era berean, Paz con dignidad elkarteko boluntario bik Zaragoza El Salvadorreko herrian izandako esperientzia azalduko dute. Ekitaldirako gonbidapenak kultur etxeko txarteldegian banatuko dira. Pertsonako lau gonbidapen emango dira.

Banango ikastaroa

Hiru bat Zamudioko dantza taldeak Banango dantza ikastaroa antolatu du. Azaldu dutenaren arabera, dantza hura Lagatzu euskara elkarteak ekainean antolatuko duten Euskal Jaian dantzatzeko asmoa dute, eta, horregatik, entsegu txukunak egin nahi dituzte. Dantza taldekoek ikastaroan parte hartzeko gonbidapena luzatu diote herritarrei. Maiatzaren 27an, arratsaldeko 7etan, batuko dira eskolan, eta, ikastaroa egiteko prest dagoen lagun-kopuruaren arabera, zein egunetan eta zein ordutan egingo duten zehaztuko dute.

Abestia grabatu dute Loipun



a: Nagore Sustatxa

Jesus Sustatxa eta Luis Gómez loiuztarrek urteak daramatzate herriko historia batzen. Horretarako, argazkiak jasotzen ibili dira, eta hainbat ekimenetako irudiak grabatu dituzte. Irudiekin dokumental bi egiteko asmoa dute, eta haietan era askotariko gaiak uztartuko dituzte: antzinako eta gaur egungo ohiturak, ospakizunen bilakaera eta herritar xelebrei egindako elkarriketak, banaka batzuk aipatzearen. Lehenengo dokumentala udazkenerako egongo da prest, eta laster hasiko dira bigarrena atontzen. Hala ere, ez dakite azken hura noiz egongo den kalean, babesleak behar dituztelako, gastuei aurre egiteko.

Baina ilusioz dabilta lanean eta apirilean 35 lagun batu dituzte, bigarren dokumentalean sartuko den *Amatxo* abestia grabatzeko. Vicente Arteagoitia Loiuako alkatea, udal ordezkariak, elkarteetako kideak eta gaztetxoak izan ziren kantarien artean. Iñaki Basabe gitarrajoleak eta Eneritz Larrañaga trikitilariak ere hartu dute parte grabazioan. Abestia Sustatxak idatzi du, eta bertan aitita galdu duen ume batek Loiori buruz di-tuen oroitzapenak azaldu ditu.

Bestalde, Sustatxak eta Gomezek dokumentala egin dute Elotxelerrri auzoaren gainean, Arrietane Fundazioaren laguntzarekin. Dokumentalaren aleak maiatzaren 1ean banatuko dituzte, meza ostean.

GOITOLTEA, 7 B EZKERRA
48196 LEZAMA, BIZKAIA

**EXCAVACIONES
AZURMENDI**

epetangi@excavacionesazurmendi.com

MOBILAI: 649 102 122
TEL/FAX: 944 554 158

**Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.**

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

**Pentsu
naturalak**

pro audio

SONUEN ADITUAK

Txorierrri et., 15
48150 Sondika bizkaia
944 533 375

www.proaudiosondika.com
jose@proaudiosondika.com

- hiri
- nobigazioa
- telefonía
- segurtasuna
- ingurumen
- pertsonifikazioa

**TXORIERRI
Inmobiliaria**

Justo Aljuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

arrangak gerta

ARROKULARRITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ENKALDATZEAK
SALERUNTZAK
SEGUROR BILBARRAK AGENZIA

Ikastolen aldeko jaietara joateko autobusak

Aurreko urteetan bezala, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak autobusa jarriko du aurten, ikastolen aldeko jaietara joateko. Mankomunitatean bertan edo liburutegietan eman beharko da izena epe hauen barruan: Herri Urrats, maiatzaren 4ra arte; Ibilaldia, maiatzaren 9tik 25era arte; Araba Euskaraz, maiatzaren 30etik 15era arte; Kilometroak, irailaren 12tik 28ra arte; eta Nafarroa Oinez, irailaren 26tik urriaren 12ra arte. Izen ematea

arrastiko 3etan itxiko da adierazi diren epeetako azken egunetan. Parte-hartzaileek bost euro ordaindu beharko dute, baina hiru euro itzuliko zaie bidaia egin ostean. Jaietara bakarrik joan nahi duten adingabeek gutxienez 14 urtekoak izan beharko dute irteera egunean. Gainera, gurasoen baimena aurkeztu beharko dute; Herri Urratsera joateko, nortasun agiria eta Ertzaintzaren baimena edo pasaportearekin ere beharko dira.



IV. CDR

Santzoka Derioko gazteen elkar-teak CemenDerioRock ekitaldia antolatu du maiatzaren 7rako. Ekimena laugarren aldiz egingo dute aurten.

Goizeko 12etan umeei zuzendutako patinete ikastaroa egongo da, eta arratsaldeko 15etan hasiera emango diote Long Board txapelketari. Parte-hartzaileek hiru proba egin beharko dituzte: eslamoa, irristatzeak eta jaitziera libre. Iluntzeko 8:30etarako herri afaria antolatu dute. Aurreko edizioetan bezala, lagun koadrilek janaria eta mahai-tresnak eraman beharko dituzte, eta antolatzaileek plantxa jarriko dute. Kontzertuak gaueko 10:30ean hasiko dira eta eszenatoki gainean hurrengoak arituko dira: Mental eraser, Seismo, Frantzeska eta Nebula Selektah. Institutu ondoan karpa bat jarriko da eta ekitaldiak bertan egingo dira.



BASALBEITIKO TXAKOLINA

Berkaitxo Txakolina
Produktuak 100% txakolina

Berkaitxo Txakolina

Geltokizua: auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

ANULACIONES SEPTICAS

MUNGIA

24 horas
Carbónes y otros productos para
Estanques, Piscinas, etc.

Pina, 2C, 4. planta | 48170 Zamudio BIZKAIA
T: 94 446 02 09 | Fax: 94 446 75 99
mungia@sanamienmungia.com | www.sanamienmungia.com

HARATEGIA

ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Baduzu arazorik nahi duzun lekura iristeko?



Etxebizitzetarako igogailuak

Eskailera igogailuak

Plataformak

Arazoei agur...



902 54 08 54 www.arlan.biz


Abegi-familiak behar dira

Udan ume sahararrak eta errusiarrak etxean hartzeko kanpaina jarri da martxan, Sondikan. Interesa duten familiek bertako udaletxera jo ahal dute (94 453 51 71), informazioa jasotzeko. Kanpainaren ardura-dunek laguntza emango diete egin beharreko kudeaketa-lanak egiten, eta, era berean, abegi-familiiei zuzendutako diru-laguntzen berri ere emango diete.

Emakumezkoen Txorierriko sari nagusia

Txorierri SC Zamudioko taldeak Emakumezkoen Txorierriko sari nagusia antolatu zuen laugarren aldiz apirilaren 17an. Proban 174 txirrindularik hartu zuten parte. Ana eta Irene Usabiaga ahizpek irabazi zuten lasterketa elite eta junior kategorietan hurrenez hurren. Alicia González txapeladuna izan zen kadete kategorian. Txorierriko lasterketak hasiera eman dio Espainiako txapelketari, eta baliagarria da Euskal Federazioak antolatzen duen Euskaldun torneorako. Era berean, Bizkaiko Txapelketaren barruan dago. Antolatzailleen esanetan, lasterketa arrakastatsua izan da parte-hartzeari zein antolakuntzari dagokienez. "Are gehiago, urterik urte parte-hartzaile gehiago eta arrakasta handiagoa duen lasterketa da".

Argazki rallya, Sondikan



Sondika-Goiri argazkilaritza elkarteak argazki rallya antolatu du maiatzaren 8rako, goizeko 10:30etik 17:00ak arte. Nahi duten argazkizale guztiek hartu ahal izango dute parte ekimen honetan; elkar-terearen bazkideek eta Gazte txartela dutenek sei euro ordaindu beharko dute eta beste guztiek, bederatzi euro. Dirua BBK-ren 38-3006143-1 kontu korrantean sartu behar da, edo rally egunean bertan eman.

Irteera Artebe kiroldegitik egingo da. Parte-hartzaileei haraneko mapa eman go zaie eta azalduko zaie zeintzuk diren rallyko gaiak, ibilbidean zehar pasatu beharreko kontrolguneak eta bestelako informazioa. Argazki digitalak egingo dira, eta argazki-kameraren memoria-txartela hutsik egon beharko da. Gainera, data eta ordua ere egon beharko dira egoki zehaztuta. Antolatzailerekin informatika programa baten bitartez egiaztatuko du argazkiak rally egunean eta ordutegiaren barruan egin direla.

Sariak maiatzaren 28an banatuko dira, goizeko 11:30ean, Sondikako Kultur Etxean. Orotara hiru sari emango dira: 250 euro, bildumarik onenari; 150 euro, argazkirik onenari; eta 150 euro, argazkirik originalenari.

Informazio gehiago:
sondikargazki@gmail.com



LARRABETZU
☎ 94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)



**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tfnua.: 94 452 11 58
ZAMUDIO



Pilota Eguna



Arbolantxa Zamudioko Pilota Eskolak Pilota Eguna antolatu du maiatzaren 21erako. Ekimena iaz egin zuten lehenengo aldiz. "Zamudioko lagunak ez ezik Lezamakoak ere hurbildu ziren frontoira eta ekitaldi arrakastatsua izan zen. Hura urtero antolatzea pentsatu dugu". Goizeko 11etan pilotako hainbat modalitate-
ren erakustaldia izango da, eta jokoak ere egingo dituzte. Eguerdiko 12etan pilota partidak jokatu dituzte eskolako u-
meek. "Gazteek zein nagusiek gurekin bat egitea espero dugu. Nahi duenak aukera du frontoira etortzeko, nahiz eta Zamudiokoa izan ez. Umeen gurasoak ere anima daitezke".



Emakumeen Osasunaren Eguna

Maiatzaren 28an Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna izango da, eta gurean zenbait ekimen antolatu dira data horren inguruan. Besteak beste, hitzaldiak eskainiko dira Txorierriko herri guztietan. Ugalketa-eskubideen aldeko Emakumeen Munduko Sareak batzarra egin zuen 1987an Costa Rican, eta handik honako ondorioa ateratu zuten: data bat ipintzea beharrezkoa zela, politikei eta programei buruzko hausnarketa egiteko, eta munduko emakumeen osasunaren aldeko ekimenak proposatzeko. Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Eguna batzar horretan sortu zen, beraz. Egunak emakumeek osasunerako eskubidea dutela aldarrikatzea du helburu, traba edota bazterketa barik, eta euren bizitza osoan zehar.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)



SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. CANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15




GARAIOLTZA, S.A.
PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

Etxebizitzak
Merkataritza-lokalak
Garajeak
Lehen mailako eraikuntzak
Lehiate handiak
Ordaintzeko erraztasunak

Tel.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



“Nahi dudalako”, gazteentzat eginiko kanpaina

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak “Nahi dudalako” kanpaina jarri du martxan, euskararen erabilera sustatzeko eta indartzeko. Kanpainaren berri eman zaie, etxean, Institutuan ari diren hamasei urteko gazteei, eta gonbitea egin zaie euskaraz ikasten jarrai dezaten. Itxaso Paia bertsolariak ikasleontzat eginiko hitzaldi bi eman zituen eta haietan azaldu zien zelan hurbildu zen bera euskararen mundura; ikasleek euren zalantzak azaltzeko aukera izan zuten. Gainera, www.nahidudalako.com webgunea bisitatu eta aztertu zuten.



Irteera, upeltegi batera

Loiuko Larrakoetxeko Jai batzordeak irteera antolatu du maiatzaren 28rako. Loiuztarrek Heredad Ugarte Errioxako upeltegia bisitatuko dute. Larrondotik goizeko 8,30etan irtengo dira eta geldialdi bi egingo dituzte: bata, Herriko Plazan (Loiun), eta bestea, Jesusen Bihotzaren plazan (Bilbon). Handik Errioxara abiatuko dira. Upeltegiko instalazioetatik bisitaldi gidatua egingo dute eta hiru ardo mota dastatu. Pintxoren bat jateko aukera ere izango dute. Ostein, beste geldialdi bat egingo dute Biasterin, eta arrastiko 3etan bazkaria izango dute Heredad Ugarte upeltegiko jatetxean. Bazkaldutik ondoren, Bastidan lotuko dira eta Loiura gaueko 10etan itzuliko dira. Maiatzaren 1etik 14ra arte eman behar da izena Zabaloetxeko eskola zaharrean, 11:00etatik 13:30era bitartean. Argibide gehiago nahi bada, bertan emango da.



Txakolinaren Eguna egin zen Larrabetzun

a: Nekalur

Egun polita irten zen apirilaren 17an, eta lagun asko animatu ziren Larrabetzuko Txakolinaren Eguna. Azoka hamargarren aldiz egin da aurten, eta Irene Pardo Nekazaritzako foru diputatua eta Tomas Ordeñana Larrabetzuko alkatea izan ziren han bildutakoaren artean. Andoni Ojanguren Erdikoetxe txakolindegikoak kortxoa kendu eta brindisa Txorierriko txakolin-egileek egin zuten. Antolatzaileek azaldukoaren arabera, guztira 1.150 kopa saldu ziren, 1.100 litro txakolin gutxi gorabehera. Ekoizleek zein bisitariek bertoko txakolinaren kalitatea goraipatu zuten. Azokan 36 postu jarri ziren eta bertan Txorierriko bederatzi txakolin-egilek hartu zuten parte. Ciriaco Dañobeitia Sasines txakolindegikoari 150 euroko txekia eman zioten saritzat, epaimahaia osatzen zutenen iritziz, posturik ederrena berak jarri baitzuen.



OSTEOPATIA-ZENTROA
ESKU-TERAPIAK

Lasai

Luis M^a Asensio
Osteopata

herriak - zutikak - asanburak - urreak - bihurtu - arazoak
traumatismoak - bertigoak - zurrak - biziak - mialak - obuloginako alterazioak
pello-batzenak - zurrak - aurrik - eta ondoren - prestatu

Larrabari, 1 lortia - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69
emaila: osteopatiolasai@euskalnet.net

Mascotas Maider

Kooperatiboko animaliak
Txakurrien ile-spaindegia
Osagarriak
Elizadura

Reagilide eta Gernikako urholaren txakoa, 48160 Derio - T: 94 404 21 85



İREKİ

BİDEA

EZKERRARI



aralar

Istoriotxoak, japoniar eran

t: Gaizka Eguskiza / a: I.B. eta Argiñe Garabaya

Behin batean, Nafarroako printzesa bat etorri zen Zamudioko liburutegira ipuinak kontatzera. Inés Bengoa zuen izena, eta lehen aldia zen Txorierrira zeto-rrera. Inések era berezi bat izaten zuen istorioak kontatzeko: Kamishibai Japonia-ko teknika. Herrian inork ez zuen teknika horren berririk, eta kuxkuxero bat ausartu zen galdera batzuk egiten:

–Zertan datza Kamishibai teknika?– galdetu zion Inési.

–Hitz egiten dudun bitartean, umeek irudiak ikusten dituzte kutxatxo batean. Irudiok lagungarriak dira ipuinaren hitz-jarioari jarraitzeko. Horri esker, adin guztietako umeengana hurbiltzeko era izaten dut –erantzun zion printzesak.

–Baina zeintzuk dira teknika horren abantailak?

–Umeek parte hartzeko aukera dute

Inés Bengoak umeentzako ipuinak kontatu zituen apirilaren 16an, Zamudioko liburutegian

*Izatez aktorea da Inés,
baina 2002tik ipuinak
kontatzen ditu*

*“Umeek parte
hartzeko aukera dute,
eta hori oso
dibertigarria da”*

eta oso dibertigarria da hori. Normalean, laguntza eskatzen diet haurrei, eurek ere parte hartzeko eta ondo pasatzeko. Umeak ezin daitezke egon denbora luzean ezer egin gabe, eta ikuskizunaren partaide direla sentitu behar dute. Beste alde batetik, umeek ondo pasatzen dute istorioak ikusten eta entzuten, baina gainera ipuinak zerbait irakasteko ere kontatzen dira.

–Baina uste duzu haurrek irakaspena harrapatzen dutela?– galdetu zion kuxkuxeroak.

–Bai. Agian ez dira ohartzen, baina umeak oso sentikorrak dira, helduok baino sentikorragoak. Umeak esponjak be-



zalakoak dira, dena hartzen dute, eta euren barruan mugimendu itzela dago-azaldu zuen gazte nafarrak.

Inések oso harreman ona izaten zuen umeekin, eta izugarri gustatzen zitzaion euri barre eragitea. Hala ere, oso publiko zorrotza izaten omen ziren txikiak. Izan ere, burura etortzen zitzaion lehenengo gauza ozenki esaten zuten. "Ez zait gustatzen", edo "aspertu egiten naiz" adierazten zuten lotsa barik, gehiegi pentsatu barik. Printzesak oso esperientzia politak izaten bazituen ere, ikuskizunaren amaiera aldean, batzuetan nekatzen eta mugitzen hasten ziren, "umeak direlako, eta umeak halakoak direlako". Horrelakoak gertatzen zirenean, printzesa saiatzen zen haurrak harritu zitezen: espero ez zuten zerbait egiten edo esaten; ustekabeen harrapatzen, azken batean.

Herrikoak liluratuta zeuden printzesa-ekin, eta galderak egiten hasi ziren berriro:

–Zelan hasi zinen ipuinak kontatzen?

–Ni, izatez, aktorea naiz, baina 2002an ipuinak kontatzeko aukera sortu zitzaidan. Eta gaur egun jarraitu egiten dut; eta



Kamishibai teknika

Kamishibaiak paperezko drama esan nahi du japonieraz. Gainera, bada ipuinak kontatzeko era bat. Joera Japoniako tenplu budistetan sortu zen XII. mendean, baina Mendebaldean 1920tik 1940ra bitartean berpiztu eta zabaldu egin zen. Ipuina aurrera joan ahala, hizkera (ipuiña bera) eta irudiak (kutxatxo batean sartuta) uztartzen dituzte kontalariek. Duela bi urte, teknika horren inguruko ikastaroa eman zuten Iruñean, eta Inési "desberdina eta interesgarria" iruditu zitzaion. "Umeek, gainera, primeran pasatzen dute".

oso gustura, gainera. Aktorea eta ipuin kontalaria izatea jarduera osagarriak dira, jendaurrean hitz egin behar dut batean nahiz bestean. Horrek eskarmentua eman dit, eta gainera lotsa galtzeko ere balio izan dit. Aktoreek adierazkortasuna landu behar dugu, bai ahozkoa, bai fisikoa; hau da, hitz eta keinu bidezko komunikazioa. Ipuinak kontatzen ditudanean, hitz egin behar dut, baina animazio lanak ere egin behar izaten ditut askotan.

–Eta zein da zure ipuinik kuttunena?

–Kamishibairi dagokionez, *Sukaldari mutur beltza* izenekoak gustatzen zait. Ustekabez beteta dago, eta oso polita da. Umeak pixkanaka-pixkanaka sartzen dira ipuinean, eta oso dibertigarria da. Ipuin arruntei dagokienez, *Elurrezko panpina* esango nuke. Oso barregarria da eta hurrek primeran pasatzen dute.

Printzesak istorio zoragarrien berri eman zien zamudioztarrei, eta haiek primeran pasatu zuten. Datorren urtean, agian gehiago entzuteko aukera izango dute. Hori hala bazan, sartu dadila kalabazan, eta atera dadila Zamudioko liburutegian.

EUSKO JAURLARITZA
INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAIA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA

formazio zikloak
erdi eta goi mailako zikloak
nekazaritza – itsas-arrantza

ciclos formativos
grado medio y superior
agraria – marítimo-pesquera

Natura lanbide?

Zatoz Itsasmendikoira!

Te ofrecemos una formación práctica
en profesiones del sector
agrario y marítimo-pesquero:
¡Ven a Itsasmendikoi!

**Etorri gure
ate irekietara!**

**¡Ven a nuestras jornadas
de puertas abiertas!**

maiatzak 11 de mayo
16.00 h

IMK Arkaute - IMK Derio - IMK Fraisoro - IMK Pasaia

IMK DERIO (BIZKAIA)

ERDI MAILAKO ZIKLOAK
CICLOS DE GRADO MEDIO

- LORAZAINTZA ETA LORADENDA
- JARDINERIA Y FLORISTERIA
- NEKAZARITZA EKOLIZPEN EKOLOGIKOA
- PRODUCCIÓN AGROECOLÓGICA

GOI MAILAKO ZIKLOAK
CICLOS DE GRADO SUPERIOR

- NATURA ETA PAISAIA BALIABIDEEN KUDEAKETA ETA ANTOLAKETA
- GESTIÓN Y ORGANIZACIÓN DE RECURSOS NATURALES Y PAISAJÍSTICOS

www.itsasmendikoi.net

Komertzio eta enpresak behar ditugu!

Oraindik ez zara bazkide?



- ✓ Euskal kultura sustatu
- ✓ Elkargunea sortu
- ✓ Gizarteari eta enpresei zerbitzuak eskaini
- ✓ Komertzio eta enpresak ezagutzera eman

ENPRESA BAZKIDE BATZUK

- Cartonajes Lantegi, S.L. (Derio)
- Urel Psikologia (Sondika)
- Ardolan Laboratorio, Asesoría y Formación, S.L. (Derio)
- Goizalde Ileapaindegia (Larrabetzu)
- Lantegi Batuak Fundazioa (Loiu)
- Leire Begoña Ileapaindegia (Derio)
- Patxi, S. Coop. (Zamudio)
- Euskadi Fundazioa (Derio)
- Lorra, S. Coop. (Lezama)
- Derribos Petralanda, S. L. (Loiu)
- Liliak Loradenda (Derio)
- Cianoplan, S.L. (Zamudio)
- Oskarbi Fotografoak (Zamudio)
- Sormentaorain 2010, S.L. (Larrabetzu)
- Suit Delux Colchoneria Arteaga (Derio)
- Sukia Eraikuntzak, S.A. (Derio)
- Zainduz Hortz Klinika (Derio)
- Ane Ileapaindegia (Derio)
- Magalarte Txakolina (Lezama)
- Garkalde Txakolina (Lezama)
- Ederki Estetika (Derio)
- Canteros Trikuharri, S.L. (Loiu)
- Beriain Elektrizitatea, S.L. (Derio)
- Aurtenetxe, S.A. (Lezama)
- Rafa Busak, S.L. (Larrabetzu)
- Urbelan, S.A. Eraikuntza Enpresa (Zamudio)
- M^a Antonia Díaz García Farmazia (Lezama)
- Ainhoa Quijano Cuesta Farmazia (Zamudio)



EGIN ZAITEZ BAZKIDE!



Tel.: 634 401 580 (Alazne)



69 posta kutxa
48160 Derio



alegarreta@baserriantzokia.com
www.baserriantzokia.com



Txorierriko
Euskara Elkarteak

Aldakak mugitzen parekorik ez duen abeslari kolonbiar baten abesti batean bere izena esaten zuten batera. Baina gu etxeko dantzariarekin geldituko gara oraingo honetan. Hakima Vélezek odolean darama erritmoa, eta aho berte hortz uzten ditu bera dantzatzeko ikusten duten guztiak.


t: Itxaso Marina / a: Indra Murugarren

Hakima Lezamakoa da eta 14 urte baino ez ditu. Hala ere, taula betetzen du bere mugimendu zorabiagarriekin. Dantzatzeko orain dela urte bi hasi zen, "gustatzeko zaidalako eta dantza egiten dudanean libre sentitzen naizelako". Joan den urtean funky klaseak hartu zituen, baina aurten akademiara joateari utzi egin dio. "Autodidakta naiz eta nire kabuz ikasi nahiago dut: telebistan agertzen diren dantzariak ikusten, ispilu aurrean entseatzeko... *Fama* saioa ikusten dut normalean". Ez da erreza izan behar, batez ere dantzetan hainbat estilo uztartzen dituela kontuan hartzen badugu. "Funky, hip-hop, reggaeton... Balleta izan ezik beste dantza mota guztiak gustatzen zaizkit. Eta dantzatzeko, erritmo handiko abestiak nahiago ditut: Black Eyed Peas taldearenak, Rihanna abeslariarenak...".

Lagunekin edo bakarka; berdin dio Hakimari nola dantzatzeko. Mireslerik amorratuak etxean eta lagunaren artean ditu. "Oso ondo egiten dudala esaten didate eta dantza zaletasuntzat izatera animatzen naute. Baina nik uste dut oso maila baxua dudala". Gure ustez, oso neska apala dela esan diogu guk.

Txorierritik Famara

Hakima izenak "jakintsua" esan nahi du, eta erro arabiarrek nolabaiteko eragina izango dute gazteak dantzatzeko duen erraztasunean, beharbada. "Sabeleko dantzarekin ere saiatu naiz, oso dibertigarria da". Eskolak, hipikak eta bestelako ekintzek astia uzten baliote, dantza aka-



*"Dantza egiten
dudanean libre
sentitzen naiz"*

demia batera joatea gustatuko litzaiokeela esan digu, eta inoiz dantzari profesionala izatea. "Baina dantzarena bigarren mailakoa da niretzat. Nik zaldizkoa izan nahi dut eta hipika eskolara noa horretarako. Aurreko egunean zalditik erori nintzen eta ospitalera eraman ninduen. Zal-

diak salto eman zuen eta ustekabeen harrapatu ninduen... Zorionez, sustoa mina baino handiagoa izan zen". Dena dela, ziurtatu digu dantzari moduan aukera ailegatuko balitzaio, ez lukeela galduko.

Izarren Distira galan bere gaitasunengatik nabarmendu egin zen eta merezitako bigarren postua lortu zuen. Gala bigarren aldiz antolatzen bada, bertan eman go du izena berriro. Eta 18 urte betetzen dituenean, *Fama* saioan edo hura bezalako beste saioen batean saiatzea baliteke. Adi egongo gara, Hakima etorkizun handiko dantzari gaztea delako. Zuhur ibili, Shakira!

“Hil arte ibiliko naz bizikletaz”

JULEN LARRUZZEA | atleta



Bizitza osoa emon dau korrika egiten Julen Larruzeak: txikitan atletismoa egiten hasi zan gazte larrabetzuarra; geroago, duatloietan ibiltea erabagi eban, eta bere hurrengo erronka triatloiak dira. Momentuz bere kabuz entrenatzen dau, baina laster entrenatzaile baten aginpean jarriko da agian.

t: Gaizka Eguskiza / a: J.L.

Zelan hasi zinan korrika egiten?

Ni betidanik egin dot kirola. Ikastolan, guztiek legez, futboleak aritu nintzan, baina ondo egiten nebana korrika egitea zan. Anaiak be korrika egiten eban. Eta serio hasi nintzan atletismoa egiten: Galdakaoko klub batean eta entrenatzaile baten aginpean.

Eta korrika egitetik bizikletara...

Bai, soilik korrika egiten nebanean, behin baino gehiagotan hartu neban mina. Zauriak osatzeko bizikletaz ibilteko gomendatu eusten, eta zaletasuna hartu neban. Nik kirola egunero-egunero egiten dot, ezin naz etxean egon arrasti osoan. Orduan korrika eta bizikleta uztartzea bururatu jatan eta daua urte bi duatloiak egiten hasi nintzan. Gero eta hobeto egiten dot, eta hobetzeko marjina be badodala uste dot.

“Kirola egunero-egunero egiten dot, ezin naz etxean egon arrasti osoan”

Zelango lasterketetan hartzen dozu parte? Zein nahiago dozu?

Neguan atletismoa egiten dot, hau da, krossak-eta. Eta eguraldi ona datorrenean, duatloiak egiten dodaz. Normalean Estatu mailan ibiltzen naz, baina Alemanian eta Frantzian be egon naz. Hiru duatloi mota dagoz: sprint (5 km korrikan, 20 km bizikletaz eta 2,5 km korrikan); laburra (10 km, 40 km eta 7,5 km) eta luzea (12 km, 75 km eta 12 km). Niri berdin deust:

ondo entrenatuz gero, edozein egiteko gauza naz. Ni batez be korrika egiten naz ona, eta lehenengo zatian ondo ibiltzen naz.

Kirol zaila da?

Korrika egitea errazagoa da, baina duatloietan teknika da oso garrantzitsua. Hasiera batean korrika egiten dozu, baina gero bizikleta hartu behar da. Aldaketa hura landu behar da denborarik ez galtzeko. Eta duatloietan aldaketa bi dagoz: korrikatik bizikletara, eta bizikletatik korrikara ostera be. Hori ikasteko denborea behar da, baita material ona be. Nirea, esate baterako, ez da goi-mailakoa, nik ordaindu behar dodalako eta oso garestia dalako.

Dirua aipatu dozu. Laguntzarik ez dozu?

Ez, bat be ez. Gernikako talde batean nabil, baina nik ordaintzen dot fitxa. Beste alde batetik, lasterketetan parte

hartzeko izen-emotea be ordaindu behar dot. Urtean 1.000 euro gastatzen dot soilik horregatik. Eta materiala (zapatillak, bizikleta...) nahiko berezia eta garestia da.

Apirilean Euskadiko duatloi txapelketan ibili zara Arrigorriagan. Zelan?

Ondo, pozik. Zortzigarren postuan amaitu neban lasterketa. Gogorra izan zan, baina espero baino bigunagoa.

Triatloiak be egin nahi dozuz. Dualtoitik triatloiera, ez da oso salto handia?

Triatloien denboraldia ekainean hasiko da. Aurten uger egiten hasiko naiz, eta nahiko ilusionatuta nabil. Saltoa? Bai, uger egin behar dalako, baina niretzat ez da izango hainbesterako. Soroslea izateko titulua eskuratu neban eta ondo moldatzen naz uretan. Ez naz itoko (kar, kar). Momentuz musturra baino ez naz sartuko mundu horretan.

Zein izan da zure lorpen handirik kirolean?

Gaztea nintzala, Euskadiko atletismo txapelduna izan naz birritan edo hirutan. Ganera, kadete mailan Estaduko laugarrena izan nintzan. Azken bolada honetan, 23. postuan amaitu neban Espainiako duatloi txapelketa. Ez zan garai-penik izan, baina itzelezko esfortzua egin neban, izugarrizko esperientzia bizi izan neban eta oso harro nago.

Zelan eta non entrenatzen dozu?

Neguan atletismoa egiten dot; eta eguraldi ona datorrenean, duatloiak egiten dodaz

Momentuz ez daukat entrenatzailerik, baina orain serioago hartu gura dot, eta agian baten bat hartuko dot. Izan be, 28 urte dauzkat eta kirol honetan adinik aproposena da. Entrenatzaileraren bat hartzen badot, planifikazioa hobea eta diziplina handiagoa izango litxateke; gaur egun astero egiten dot planifikazioa eta oso nekatuta ailegatzen banaz etxera, beharbada ez naz ateratzen. Lekuari jago-kionez, Galdakaoko atletismo pistara joaten naz; bestela, Larrabetzuko inguruko mendietatik ibiltzen naz.

Noiz arte emango dozu korrika egiten?

Ez dakit. Erretzeak hil egiten omen du, baita korrikak be. Oso gogorra da eta normalean lesinoak ekartzen dauz.

Korrika egiten, ez dakit, baina bizikletaz hil arte ibiliko naz. Eta bizikletan ez bada, beste gauza batean izango da. Niri gauzez ibiltea ez jat inoiz gustatu, baina orain askoz gitxiago. Izugarri ondo pasatzen dot kirola egiten eta astebururo-astebururo lasterketan hartzen dot parte.



ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAI SA
Estetika eta ileapaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDIKA

LIBRERÍA SONDIKA LIBURUDENDA
ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, koadernaketa, plastifikatuak,
prentsa, aldirakariak, liburuak,
papegintza eta eskulanak

Mikel Zarate, 2 - Tel. / Faxa: 94 453 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Hamabost urte bete dira Bertoko Zamudioko soinu-tresnen elkarteak sortu zenetik. Urteurrena ekainaren 4an, zapa-tuan, ospatuko dute. Egunari goizeko 11etan emango diote hasiera eta, besteak beste, hauek egongo dira goizean: kalejira, umeentzako jolasak, hamaiketakoa eta trikipoteoa. Herri bazkaria ere egingo dute, eta arratsaldean umeentzako puzgarriak, kantuz kantu ekitaldia eta erro-meria izango dira. Erromeria Izargi talde-ak girotuko du.

"Ibilbide honetan gure kultura ibili gara sustatzen, arrakastaz. Eta ibilbide eta arrakasta horiek gure artean ez ezik zamudioztar guztiekin ere ospatu nahi ditugu. Gainera, herritarrak guregana hurbiltzea eta gure lana ezagutzea nahi dugu", esan digu Josu Aretxabaleta Bertokoren presidentek.

Baina hau ez da urteurrenaren haritik egingo duten ekintza bakarra. Horrela, Lagatzuk antolatzen duen Euskal Astean hartuko dute parte maiatzean, eta ekai-nean ekintza batzuk egiteko asmoa dute, herria girotzeko. Gainera, azaldu digute-naren arabera, aurreko hilabeteetan mu-

Bertokok urteak bete ditu



sika tailerrak ere antolatu dituzte. Gaur egun 120 lagun inguru daude Bertokon, soinuren bat ikasten. Eskolak sei irakaslek

zuzentzen dituzte eta, era berean, elkarte-ak musu truk lan egiten duten laguntzaile sare handia ere badu.



bertoko

15. urteurrena

ekainak 4

Bidekoetxe parkean



11:00 Txupinazoa eta kalejira

12:00 Umeen jolasak eta hamaiketakoa

13:00 Dultzaina-alboka-txalaparta-triki-pandero-poteoa

14:30 Herri-bazkaria*: txahal errea (laguntzailea: Kalitatea)

16:00 Puzgarriak (laguntzailea: Zamudio Racing)

17:00 Kantuz-kantu

20:30 Erromeria: IZARGI

Partaide, partaide ohi eta beste guztiak gonbidatuta zaudete!!

Babesleak:



* Herri-bazkarirako tiketak maiatzaren 29ra arte FERNAN, SUSTERRAK, CRAZY GUITAR, AMA3 eta BIDEGORRI tabernetan.



BARDINEAN EUSKERAZ

Horrelako zerbitzurik behar duzu?

Aisialdirako begiraleak
Klase partikularren irakasleak
Kirol begiraleak
Aurkezleak
Umeen zaintzaileak

**Zatoz
Mankomunitatera!**

Euskaldunak behar ditugu

**Buscamos
euskaldunes**

¿Necesitas estos servicios en euskera?

Monitores/as de tiempo libre
Profesores/as de clases particulares
Monitores/as de deporte
Presentadores/as
Cuidadores/as de niños/as

**¡Ven a la
Mancomunidad!**



***Informazioa, Mankomunitateko Euskara Zerbitzuan**
***Información, en el Servicio de Euskera de la Mancomunidad**



DERIO



LARRABETZU



LEZAMA



LOIU



SONDIKA



Zamudio
Udala



MANKOMUNITATEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SALA
Hizuntza Publikoaren Sareko Unitatea



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



a: Bizkaiko Dantzarien Biltzarra

Euskal Herriko Dantzarien Eguna 1978. urtean egin zan lehenengo aldiz. Handik hona, lurralde osoan zehar ibili da urterik urte, eta oraingo honetan gurera iritsiko da, Erandiogoikora hain zuzen be.

Euskal Herria dantzan

Maiatzaren 1ean Euskal Herriko Dantzarien Eguna ospatuko da Erandiogoi-koan. Han gure Herriko bazter guztietatik etorritako lagun andana batuko da, euskal folklorea bizirik dagoala erakusteko. Jai-egun handia izango da.

Dantzariak zazpi herrialdeetako dantzen alardea eskiniko dabe, eta kolore anitzeko ikuskizunaz gozateko aukerea eukiko dabe futbol zelairaino hurbiltzen diranek. Gainera, aukera parebakoa izango da, dantzariak euren arteko harremana sendotu daien. "Hitzordu honen bitartez

herrialdeetako dantza taldeetan dabilzan gazteen beharra azaldu gura dogu jentearrean. Era berean, bertoko dantzearen sena erakutsi gura dogu", esan dabe antolatzaileek. Halanda be, Dantzarien Eguna ez da bakarrik dantzen agerraldia izango, egun guztian zehar jai giroa egongo da. Euskal Herriko dantza taldeak batzen dituan Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatu dau ekimena.

Egunari goizeko 11:30ean emongo jako hasiera. Aitatu bezala, dantzen erakustaldia egingo da Erandiogoikoko futbol zelaian, eta dantzariak hurrengo erreperitorio hau eskiniko dabe: Ezpata dantzea, Agurra eta Zinta dantzea (Gipuzkoa); Orbaizetako joko dantzea eta Aurtzeko ingurutxo (Nafarroa); Dantzari dantzea, Makil joko nagusia, Arku dantzea eta Dominguillo (Bizkaia); Txakolin, Estradillas de Arrastaria eta Jota de la Perra (Araba); Soka dantzea, Euskaldu-

EL OSO YOGUI PG
Larunbata 30 (Apirila): 18:00etan
Igandea 1: 17:00etan

LOS CHICOS ESTAN BIEN
Larunbata 30 (Apirila): 20:30etan
Igandea 1: 19:30etan

Rio PG
Ostirala 6: 17:45etan eta 19:30etan
Larunbata 7: 18:00etan
Igandea 8: 17:00etan

AGUILA ROJA
Ostirala 6: 21:30etan
Larunbata 7: 20:30etan
Igandea 8: 19:30etan

ESTA ABUELA ES MI PADRE PG
Larunbata 14: 18:00etan eta 20:30etan
Igandea 15: 17:00etan eta 19:30etan

MAIATZA - EGITARAUA

"BODAS DE SANGRE Y SUITE FLAMENCA" Ballet
Astelehena 9 20:00etan
Madriloko El Real antzokitik zuzenean proiektatuta

"LUCIA DI LAMMERMOOR" Opera
Astelehena 24 19:00etan
Veneziako La Fenice antzokitik zuzenean proiektatuta

Derio
Ostirala 20: 18:30etan
Igandea 22: 18:00etan eta 18:00etan
Astelehena 23: 18:00etan

PARA QUE SIRVE UNOSO
Ostirala 20: 21:30etan
Igandea 22: 20:00etan
Astelehena 23: 20:00etan

SUTONDOAN ANTZERKIA
"Maribel y la extraña familia" (Miguel Mihura)
Larunbata 21: 18:00etan

PIRATAS DEL CARIBE
En mareas misteriosas
Ostirala 27: 19:00etan eta 21:45etan
Larunbata 28: 18:00etan eta 20:45etan
Igandea 29: 17:00etan eta 19:45etan
Astelehena 30: 18:00etan

www.euskodund.es

GUREA ARETOA
Lainomendi kalea, 2 - www.derioakudala.net

DERIO
kopieratu
El Real de la Perra
Superintendencia de la Perra

nak, Sorginak eta Kadrila (Nafarroa Behea); Ahurtiko makil dantzea, Makil txiki barri eta Beteluren fandangoa (Lapurdi); eta Barrikada arribada, Ostalera, Satanak, Aitzina pika eta Godalet dantzea (Zuberoa). Ikuskizunak eguerdiko 13:30ak arte iraungo dau eta arratsaldeko 16:30ean, bazkaldu ostean, erromeria egongo da Luhartz taldearen eskutik.

Sustraietan murgildu

Bestalde, aurreko egunerako be, apirilaren 30erako, antolatu egin dabez hainbat ekimen. Halan, dantzari txikiek dantzen agerraldia eskiniko dabe Astrabuduan, goizeko 11:30ean. Ekitaldian Txorierriko eta Uribe Kostako dantza taldeek hartuko dabe parte, Goi-Alde, Trabudu eta Uztargi Erandioko dantza taldeak batera. Nagusiek arratsaldean izango dabe txandea. Altagako udal merkadu zaharrean Euskal Herriko folklore zabalarri errepasoa egingo deusie eta dantzari esanguratsuenetariko batzuk dantzatuko dabez. Ekitaldia iluntzeko 8:30ean izango da, eta bertan herriko taldeak arituko dira. Kanpoko talderen bat be konbidatuko dabe eurakaz dantza-terera.

Azkenik, erakusketa bi egongo dira maiatzaren 2ra arte. Lehenengoa Astrabudua eta Altaga auzoetako saltokietan jarriko da. Komertziotan dantzarien jantziak izango dira erakusgai. Eta bigarrena Josu Murueta Astrabuduako kultura etxean izango da. Kultura Etxean Iraultza Astrabuduako taldearen kide baten jantziak jarriko dira erakusgai.

Euskal Herriko Dantzarien Egunak egitarau luzea ekarriko deusku aurtun: dantzak, erromeria, erakusketak... Aukera ezin hobea da gure folkloerari eta ohiturei eusteko, eta euren sustraietan betebetan murgiltzeko.

*“Gazteen beharra
azaldu gura
dogu jente-aurrean,
eta bertoko
dantzearen
sena erakutsi”*



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Laribide Eskola eta Bigarren Heziketa Zentroa

Uztargi Ibaia Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako zentroa



IZENA AURRETIK EMATEKO EPEA:
Batzilergoa: maiatzaren 2tik 11ra
Zikloak: ekainaren 1etik 10era



Gure tailer eta laborategiak ezagutzera etorri

ATE IREKIEN JARDUNALDIA
Maiatzaren 2an eta ekainaren 2an, 18:30ean

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazioa *Goi maila (2.000 ordu)*
- Diseinua fabrikazio mekanikoan *Goi maila (2.000 ordu)*
- Produktzioaren programazioa *Goi maila (2.000 ordu)*

KIMIKA

- Ingurumen-kimika *Goi maila (1.400 ordu)*

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Erregulazio eta kontrol automatikoen sistemak *Goi maila (2.000 ordu)*
- Telekomunikazio eta informetika sistemak *Goi maila (2.000 ordu)*

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Merkataritza eta marketin gestioa *Goi maila (1.400 ordu)*

Zientzia eta teknologia batxilergoa



Hainbat belaunalditako puba

Salamandra pubera sartu, eta gauzak lehen bezala daudela konturatu gara: barra, aulkiak, billarra, arrainontziak, hormetako harria eta egurrezko habeak... Ematen du denbora gelditu egin dela hor barruan. Tokia eta anfitrioiak berberak dira, nahiz eta antzezleak aldatu egin diren urteak aurrera egin ahala. Zamudioko lokal mitiko hau hainbat belaunalditako gautxorien habia izan da; aitita-amamek, gurasoek eta seme-alabek parranda bat baino gehiago egin dituzte bertan.

t/a: Itxaso Marina

Albertok ireki digu Salamandra pubeko atea. Barrura sartu, eta oroitzapenak etorri zaizkigu burura. Esan digun bezala, puba 1971ko urrian zabaldu zen. "Lokalak solairu bi hartzen zituen. Beheko solairuan whiskitegia zegoen eta bikoteentzako toki pribatua ere bazegoen. Lehen solairuan, diskoteka genuen. Hura Txorierriko zein Bilbo Handiko diskotekarik onenatariko bat zen. Jendetza handia batzen zen gurean, baina txiki gelditzen hasi zen eta itxi behar izan nuen orain dela 29 urte. Kafetegia jarri nuen, baina ez zen ondo joan, eta behin betiko ixtea erabaki nuen. Pubarekin baino ez nintzen gelditu".

Alberto 1973an heldu zen Salamandrara. "Zerbitzari lan egiteko proposamena egin zidaten eta onartu egin nuen. Lokala eta bertoko giroa gustatzen zitzaizkidan eta, geroago, neuk erostea erabaki nuen". Hasieran, barra atzean, esmokina jantzi zuela gogoratu du; eta ttattarra ere bai, orain dela gutxi arte.

Aulki luze batean eseri gara, barra ondoan, eta egin dugun lehenengo gauza apalategian dagoen binilo bildumari erreparatzea izan da. Musikazale amorratuak garelako izango zen, eta musikak taberna bateko elementurik garrantzitsuenatariko bat delako, beharbada. "Musika ona jarri dugu beti: Elvis Presley, The Beatles, Santana, Bee Gees, AC/DC... Binilo horiek oso zaharrak dira, altxorrak. Gordeta nituen eta animatu naiz haiei hautsa kentzera eta berriro erabiltzera".

Baina biniloak ez dira tabernan dauden altxor bakarrik. Albertok azaldu digunaren arabera, oso aldaketa gutxi egin dira Salamandran, eta altzari guztiak



Club Hípico Aretxalde

Pony club • Zaldiketa ikastaroak
Aisialdiko landak • Apolo zerbitzua
Sello • Txangoak • Animalaren heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88
Aretxalde auzoa, 89 • 48196 LEZAMA

Consulting Sondika S.L.

Sabin Askolizaga
Aseguru agentea
Allianz
609 475 746

Mixtore, 6. beheko
48150 Sondika-Bizkaia
T.: 94 453 18 07
Fax: 94 453 60 27

GOIKO TABERNA Taberna-jatetxea *Emiliano*

- Musu bereziki antolatuta
- Elizko erretzako platerak
- Rozkila antolatuta
- Egurreko erretzako eta karta
- Jauziak eta oharak
- Jantziak

B.º Goralitza, 1 • Tfno. y Fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA • Bizkaia

HARATEGIA • URDAITEGIA

VICTOR
ARTISANAL-ELABORAZIOA

Okela ekolizten dugu:
odolosteak, txoritza,
txistorra, solomak...

Plater aurrekoizina

Goiri, 4 - 48150
Sondika - Bizkaia
94 453 16 17

1971. urtekoak dira: barra, toki pribatuko mahaitxoak eta aulkiak, dantzatzeko pista txikia, hango zutabe bat gaineztatzen duen oihal granatea, koadroak... Hala ere, logikoa denez, urteak pasa ahala beste elementu batzuk jarri dira pubean: billarra eta dardo-makina, esate baterako. Tabernak hasierako xar-ma izaten jarraitzen du, beraz. Eta karaokea?

"Ai!, hori aspaldian hil zen; jasanezina zen! Karaokea 1994. urtean ipini nuen. Garai hartan modan jarri ziren karaokeak, eta jendea Bilbora joan ohi zen, halako lekuetara. Aniamatu nintzen Salamandran bat jartzera, baina beldur nintzen, ez nekielako bezeroek jasango zuten. Eta astuna zela esaten bazuten ere, erronda bat barik, erronda bi, hiru... eskatzen zuten. Baina moda igarokorra izan zen hori... Zenbat aldiz apurtu ote diren bafleak!"

Bat-batean, arrainontzietako pirañak etorri zaizkigu burura. "Kendu nituen, azken 45 zentimetroaraino ailegatu zen eta hori gehiegi da. Bestalde, hor dauden arrainetako batzuek urteak dituzte, e!"

Leporaino

Astelehenetan izan ezik, Salamandra astegun guztietan dago zabalik, arratsaldeko 7etatik gaueko ordu txikietara arte. "Lehen, egunero zabaltzen genuen, baina



duela 14 urtetik hona bakarrik nago tabernan, eta, urteek gogortzen bazaituzte ere, atsedena behar da. Tabernari batzuen bizimodua da: gauez lan egin, eta egunez lo egin..."

Orduaren arabera tabernara gazte talderen bat hurbiltzen den arren, helduak dira Salamandrako bezeroak, eta haien tartean batez ere ostalaritzan lan egiten duten lagunak daude. "Taberna edo jatetxea itxi eta hona datoz, trago bat lasai edatera, billarrera jolastera...". Krisialdiaren eragina nabaritzen duela dio Albertok, eta taberna jendez beteta zegoeneko garaia nostalgiaz gogoratzen dituela. "Lehen, inguruan, ez zegoen tragoren bat non edan, eta hau leporaino betetzen zen. Geroago beste taberna batzuk ireki dituzte eta lehia handiagoa da. Gainera, krisia dela-eta, jendeak diru gutxiago du tabernetan ibiltzeko". Gabo-

"Lokalak solairu bi hartzen zituen lehen: whiskitegia zegoen eta diskoteka"

"Oso aldaketa gutxi egin dira tabernan eta altzari guztiak 1971koak dira"

"Ez genekien munduko oherik onenak Bilbotik hain hurbil saltzen zituztenik."

Colchonería Leioa La Avanzada 80, (Bilborako norabidea) 944 316 516	Colchonería Arteaga Derioko Seminarioa, (eguerdian zabalik) 944 545 147	Lotara Koltxoi-Denda Errebal 19, Eibar 943 202 784
---	---	---

www.SUITDELUX.com

netan, tabernan lagun asko batzen zirela kontatu digu. "Enpresetako langileek Txorierrin gelditzen ziren bazkaltzen edo afaltzen, eta gero hona etortzen ziren, parrandatxo egitera. Baina orain Bilbora doaz, bertan aukera gehiago dituztelako". Athleticen jokalariai ere ohiko bezeroak izan dira Salamandran. "Liga azken aldiz irabazi zutenean, Argote eta Dani purua ahoan zutela tabernara sartu zirela gogoratzen dut. Hura zalaparta! Txato Nuñez, Txetxu Rojo... ere izan dira gure bezeroak. Entrenatzaileak, zuzendaritzakoak eta jokalariai etorri ziren gurera".

Athleticen jokalariai ez ezik hainbat belaunalditako txorierritarrek ere sartu dira Salamandra pubeko atetik. Sartu eta orduak han eman. "Aitita-amamek, gurasoek eta seme-alabek. Eta egia esan, gustuen aldetik ez dago ezberdintasun nabarmenik euren artean. Gaurko gazteak lasaiaioak dira, beharbada. Euren gauze-

"Athleticek liga azken aldiz irabazi zutenean, Argote eta Dani purua ahoan zutela sartu ziren tabernara. Hura zalaparta!"


tara doaz eta edukazior portatzen dira. Noizean behin errieta bota behar diet, ez pentsa: kuxinak desordenatuta uzten dituztela... Hala ere, kasu egiten didate, eta ez dut arazorik eurekin". Haien aurrekoak borrokazaleagoak ziren galdetu diogu, eta taberna guztietan bezala han ere lisarren bat egon dela erantzun digu. "Bai-

na lasaitu egin direnean, txarto egin dutela konturatu dira, eta barkamena eskatu dute". Eta baten bati ahaztea gustatuko litzaiokeen anekdotaren bat ere. "Eta horiek tabernako hormen barruan gelditzen dira, e!". Txantxetan ibiltzea ere gus-tatzen zaigu txorierritarroei, antza. "Hamai-ka broma egin didate! Aulkiak hartu eta taberna erdian barrikadak egin, esate baterako. Baina umorez hartu ditugu beti".

Guztion etxea

Hainbat amodiozko istorioren lekukoa izan da Salamandra taberna, eta askok han bertan erabaki dute ezkontzea. "Eta ez soilik Txorierriko bikoteak; Bilbotik, Mungiatik, Santutxutik ere bazetorren jendea eta batzuek hemen ezagutu dute elkar".

Salamandrak 40 urte eman ditu per-tsiara itxi barik, eta hiru belaunalditako



TXORIERRI MARMOLDEGIA
Sukalde eta bainugeletako harriak
Faxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoli ind., 7 B P. - 2. nabea
48170 Zamudio (Bizkaia)
T./F.: 94 608 01 41-2

LIBURUDENDA PAPERDENDA
ZAMUDIO

Gorbea kalea, 5
Telefono / Fax: 94 452 29 10 - 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA

HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO



BIZKAIKO NEKAZARIEN KOOPERATIBA ETA ELKARTEAK



LORRA, S. COOP.

Barrio Garaioltza, nº23
48196 LEZAMA (BIZKAIA)

Tel: 94 455 50 63 / Faxe: 94 455 62 45
e-mail: lorra@lorra-cg.net

www.lorra-cg.net

topagunea izan da. "Gurea guztion etxea da, giro atsegina eta lasaia eskaintzen ditugu eta bezeroek eskertzen dute. Horregatik jarraitzen dute gurera etortzen". Lehengo bezero-kopurua egon ez arren, mugimendua badago pubean, eta Albertok aipatu digu ez duela inoiz arazorik izan auzokideekin. "Ez lehen, mugimendu handiagoa zegoenean; ez orain. Hala ere, tabakoaren kontrako legea dela-eta, egia da batzuk apur bat haserre dabiltzala. Izan ere, bezeroek kanpora irteten dira erretzerara, eta, solasean badabiltza, zarata apur bat egiten dute... Sakondu egin beharko dugu horretan; tragoa tabernaren barruan uzteko ohitura hartu beharko dute". Ditzosozko lege horri dagokionez, bera pozik dagoela ziurtatu digu. "Egia da tabernarioi kalte egin digula, baina egoera berrira egokitzen ikasi beharko dugu. Tabakoaren ohiturak aldatzen diren heinean, irteteko ohiturak ere aldatzen dira. Jendeak, adibidez, nahiago du etxetik beranduago irten edo arratsaldeko lehenengo orduak terraza batean eman. Nire kasuan, taberna beranduago zabaltzea erabaki behar izan dut, baina ziur nago egoera bere onera etorriko dela".

Azken hilabeteotan bi aldiz sartu dira Salamandrara lapurtzera. Nolanahi ere, gaur egun lehen baino lasaiago ibili ahal dela dio Albertok. "Orain dela hamarkada batzuk garai gatazkatsuak bizi genituen Txorierrin, eta tabernatik bazter batetik bestera begiratuta atera behar ginen. Lapur batzuk zeuden eta ez zegoen babesik. Nik sudurra apurtuta ere eduki dut, lapurrei aurre egin baino beste erremediorik ez zegoen".

Etorkizunaz galdetu diogunean, asmo handirik ez duela esan digu. "Gaur egun egoerari eutsi beharko zaio, ea krisialdia pasatzen den eta lehengo garaiak berriro etortzen diren". Bitartean, Salamandra pubeko ateen zabalik jarraituko dute, bai taberna ondotoxoz egutuzten dutenentzat, bai datozen belaunaldientzat.

"Ez dago ezberdintasun nabarmenik belaunaldien artean. Gaurko gazteak lasaiagoak dira, beharbada"

"Hainbat amodiozko istorioren lekukoa izan da Salamandra taberna, eta askok han bertan erabaki dute ezkontzea"



Ondo pasa jaietan!!!



Derio

Zurekin Aurrera!



electricidad derio elektrizitatea
Koadro elektrikoak • Instalazioak • Mantentzea

*Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta*

Aizkorri Kalea, 1 - Telef / Fax: 94 454 31 48 - 48160 DERIO (Bizkaia)



PEREA OLABARRIETA

OPARIAK
ESTANKOA

Gorbea, 6
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel. / Faxa: 94 454 07 69

Cafeteria

pozgarri

Hamburgueseria



Sandwichak Hanburgesak
Plater konbinatuak **Gosariak**
Urdaiazpiko iberikoa

94 454 35 99
Gernikako Arbola, 4 | 48160 DERIO

X Kotixa Plaza, 2 - 4. D
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 27 19

Estudios

10

Ikastegia

Pakearen Plaza, 3 - behea
48160 Derio (Bizkaia)
Tel: 944 54 50 19 **X**

a n e

i l e a p a i n d e g i a

solarium arin horizontala
duben zerbitzua
etengabeko ordutegia
hitzordua aurretik eskatuta

tel.: 94 454 35 80

Goiko kalea, 2 - 48160 Derio

Jai zoriontsuak!
Liliak Loradenda

Erdiko kalea, 2
Telefona: 94 454 12 23

48016 DERIO
Mobila: 657 79 75 93

a: Jesús Lagunas, Iñaki Aranguiz, Juanjo Fdez. Imaz

San Isidro jaiei maiatzaren 13an emongo jake hasiera ofiziala. Halanda be, aurreko zapatuan be hainbat ekintza egingo dira, motorrak berotzen hasteko. Eta jaiei heltzeko, gastronomia ekitaldi bategaz hastea baino gauza hoberik ez dago. Maiatzaren 7an, Sukalki Eguna izango da Ipar-Alde abesbatzaren eskutik. Egunean zehar, txapelketea, umeentzako tailerrak, bazkaria eta Taberna Ibiltariak girotutako bazkalondoa egongo dira frontoiaren ondoko aparkalekuan. Baina ez dira ekimen bakarrik izango. Egun horretan bertan, Txorierriko Nagusien Jaia izango da barruko frontoian, eta Santzoka alkartekoek CemenDerioRock jaialdia egingo dabe laugarren aldiz, eskola inguruan. Astintze 53-60 seminarioko ikasle ohien alkarteak be musika ekitaldia antolatuko dabe seminarioko kapi-lan.

Ipar-Alde abesbatzak pregoia irakurriko dau hurrengo barikuan. "Hogeta hamabost urte bete dira abesbatzea sortu zanetik. Ganera, oso alkarte dinamikoa da eta beti dago prest herrian antolatzen diran ekitaldietan laguntzeko", aitatu dau Jesus Lagunas kultura zinegotziak. Txupinazo ostean, txitxi-burruntzia eskiniko da, eta berbenea 3gabe2 taldeak alaituko dau.

Kirola nagusi izango da zapatuan. Halan, alde batetik, Uribe Kostako Areto-futboleko Txapelketearen finalak jokatu-ko dira; eta, bestetik, Tiragoma Txapelketea

Jaiak ate joka doguz

Kirola, berbenak, txapelketak, azokea, umeei eta gazteentzako ekimenak... Etxean gelditzeko atxakiarik ez dago!



**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TELFOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskezik asko
etortzeagaitik

**Leire Begoña
ILEAPAINDEGIA**

Unibax ileapaindegia
Estetika
Ordutegi jarraitua
Laser-depilazioa

Mungialde etorbidea, 20 DERIO
T: 94 454 26 32

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gehi-ikusiak, orokorrak
Auzokorren konsumoak
Mantentzeko garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinia amariako garbiketak
Isatzenak
Zabur bilaketa

Besaide Plaza, 1 - Bº Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Pakearen Plaza, 1 - 1º A
DERIO

Telefonoa: 944 543 705

Albaitaritza **HENAR ORTUONDO**
ALBAITARIA

Mikel Deuna Plaza
Tel.: 94 454 28 21
48160 Derio (Bizkaia)

DERIO

LARRIALDIK: 24 ordu
Tel.: 94 480 28 84
abonatuak: 1815

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txinerri etorbidea, 5-4
415. bulegia
48160 Derio

Telefonoa eta faxa
94 454 44 56
a.amondarain@euskalnet.net

Maiatzaren 7an, zapatuan.

Sukalki Eguna

–Sukalki Txapelketea, kiroldegiko parkingean eta kanpoko frontoian. Ipar-Alde abesbatzen laguntzagaz.

–11:30-19:00: VII. Nagusien jaia, kiroldegian.

–12:00-04:00: IV. CemenDerioRock, eskolako gunean eta frontoian, Santzoka alkarteak antolatua.

–16:00-19:00: Animazinoa, Taberna ibiltaria taldeagaz.

–19:30: Leioako udal kontserbatorioko ahots gazteen musika emonaldia, Seminario txikiko kapillan, Astintze 53-70 alkarteak antolatua.

Maiatzak 13, barikua

–19:30: Konpartsen jatsieria, txapelketea eta animazinoa Tamsna taldeagaz eta Ku-klux band fanfarreagaz.

–20:30: Pregoia, Ipar-Alde abesbatzen eskutik. Txupinazoa eta txitxi-burrunzi, Odol argia eta Subyke taldeen laguntzagaz.

–23:30: Kontzertua 3gabe2 taldeagaz eta diskoiteka, txosna-gunean.

Maiatzak 14, zapatua

–10:00: “Uribe Kosta” Txapelketearen finalak, kiroldegian, Arteaga FS taldeak antolatua.

–11:00: Tiragoma Txapelketea, frontoi ondoko kirol pistetan, Tiragomaren Bizkaiko lagun-taldeak antolatua.

–11:30-14:00: Umeentzako tailerrak.

–13:30: Ipuin-kontalaria.

–16:00: “Derioko Udala” III. Slaloma

Egitaraua



lurrean, Seminario aurrean, Motorzaleen Bizkaiko alkarteak antolatua.

–17:00: “Derioko Kopa” Pelota Txapelketea, lau t’erdikoa, azpi 22-promesak, frontoian, Atxiki taldeak antolatua.

–18:00: Dantzen agerraldia, Lainomendi taldearen eskutik.

–20:30: *Diva di palo* kaleko antzerkia, kanpoko frontoian, Teatro-teatro taldearen eskutik.

–23:00: Kontzertua Damba taldeagaz eta diskoiteka, txosna-gunean.

Maiatzak 15, domeka. San Isidro eguna

–III. Aide zabaleko Pintura Lehiaketea. Izena emotea, Kultur Birikan.

–08:00 (nagusiak) eta 09:00 (helduak): XXV. Ibiltaldi neurtua, Herriko plazan, Untza mendi taldeak antolatua.

–10:30-14:30: Elikagaien eta Eskulan tailerren XVI. Azokea, Kultur Birika inguruan. Txakolinaren eta oilaskoaren dastaketea, zarpantzarrak, umeentzako tailerrak, familiarentzako jolasak eta erakusketa etnografikoa.

–11:30: Mezea.

–11:30: Futbol partidua: Athleticeen beranoak vs. Txorierriko selekzioa, I-baiondoko futbol zelaian, Gure señeak alkarteak antolatua.

–17:00: Pintura Lehiaketearen eta Ibiltaldi neurtuaren sarien banaketea.

–18:30: Briska Txapelketearen sarien banaketea. Ostean, txitxarrilloa, Cocktail orkestragaz.

–19:00: Idi-probak, probalekuan.

–19:30: Dantza latindarren erakusketa, Nagusien etxea alkartearen eskutik.

Maiatzak 16, astelehena.

Umeen Eguna

–11:30-14:00: Puzgarriak eta ludotekea.

–12:00-14:00: Gazteentzako ekintzak, Mikel deunaren plazan.

–12:30: Marrazki Lehiaketea, Odol Argia taldeak antolatua.

–16:30-19:30: Puzgarriak eta Ludotekea.

–17:00-20:00: Gazteentzako ekintzak, Mikel deunaren plazan.

–18:00: Marrazki Lehiaketearen eta konpartsen jatsierearen sarien banaketea.

–19:00: Habanerak eta bilbainadak, Iñaki Basabegaz.

Jaien amaieria eta txokolatadea.

MODA INFANTIL
Tximeleta

Gernikako Arbola, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48160 DERIO
Bizkaia

volconsa DIVISIÓ
ISOLAMENDU AKUSTIKOA

Zeure etxea intsonorizatu, doan
(Kostu osoa, AENAREN eskutik)

tel. 94 644 00 19 faxa. 94 406 49 13
aislamiento@volconsa.es www.volconsa.es
Sollube, 1 - DERIO

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zenbaitz Benito
Logopedia
Podología

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txoriñeri etorbidea, 9 - Loria | Arteaga eraikina | 48180 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentazainduz.com | www.dentazainduz.com

Tamara
Kapatu-denda Osagarriak

Herniko plaza, 2
Derio
94 656 67 27

Doctor Luis Bilbao Libano, 6
Leioa
94 463 06 32

tamara@leioa@yahoo.es

t o k t a k

EGUNERO ZABALIK
Ordutegia:
13:00etik 15:30ra arte
20:00etik 23:30ra arte
Etzera eramaitako
zerbitzua: 1 €

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Bar TRIPPY
ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbolinean jokatu, etorri zaitzez Trippya, Deriora

Beheko Kalea Baxo
DERIO



egingo da kiroldegiko pistetan. Txapelketa biak goizean izango dira. Arratsaldean, barriz, slaloma egongo da seminarioan; eta "Kopa Derio" Lau eta Erdiko I. Txapelketea, frontoian. Han promesa kategoriatikok punta-puntako pelotariak ibiliko dira lehian. Kirola ez eze dantza alardea be izango dogu Lainomendi taldearen eskutik, eta Danba taldeak hartuko dau berbenea girotzeko ardurea.

Patroiaren eguna

Ibiltaldi neurtua klasiko bat da Derio-ko jaietan. Untza mendi taldea orain dala hogeta bost urte hasi zan ekimen hau antolatzen, eta aurtengo edizinoa oso berezia izango da bere kideentzat. "Zenbakia-gaitik eta omenaldia egingo jakelako Angel Egia eta Juan Manuel Silva "Txano" taldekideak ziranei", azaldu deusku Lagunasek. Ibiltaldia domekan izango da, San Isidro Egunean, hain zuzen. Azoka be patroiaren egunean egingo da, eta orain-

go honetan nobedadea ekarriko deusku. "Lekuz aldatu eta Kultur Birika kultur etxearen ingurura eroango dogu. Kultur etxea bera zabalik egongo da goizean, eta bertan zerbait antolatuko da azokearen eskutik; udal tailerren erakusketea, tartean". Aurreko urteetan legez, Pintura Lehiaketea egongo da, eta Ibaiondoko futbol zelaian futbol txapelketea jokatu-ko da, Gure Señeak alkarteak antolatua. "Athleticeko jokalaria beterranoen eta Txorierriko futbol taldeetako jokalarien arteko partida izango da. Sarrerak bost euro balioko dau nagusientzat; eta doakoa

*"Maiatzaren 7an,
hainbat ekitaldi
egongo dira
jai-egitarau
nagusitik kanpo"*

*"Azokea kultur etxearen
ingurura eroango
da; eta txosna-gunea,
Almazene kalera"*

izango da umeentzat. Dirua alkarteari emongo jako". Eguna biribiltzeko, idi-probak egingo dira arratsaldean, eta Nagusien Etxean sortutako talde batek dantza latindarren erakustaldia eskiniko dau Herriko Plazan.

Herria girotu

Astelehena umeentzako eguna izango da. Jai eguna izango da Derio, eta hainbat ekitaldi antolatuko dira etxeko txikiak eta gaztetxoak gozatzeko: puzgariak, ludotekea, marrazki lehiaketea, wii, zezen mekanikoa... Jolas-parkeak Herriko Plazan eta Mikel Deuna Plazan jarriko dira; euria bada, kiroldegian edo frontoian. Habaneren emonaldiak eta txokolatadeak amaiera emongo deutsee jaiiei.

Lagunasek esan dauenaren arabera, txosnak eta eszenatokia Almazene kalean ipiniko dira aurtan; azoka txikia egiten dan gunean. "Kale ha zabalagoa da eta ondorioz, hobeto bete leitekez segurtasun neurriak". Barrakak kiroldegi aurrean jarriko dira; beheko eta goiko aparkalekuean. "Eguraldia lagun izatea espero dogu. Edozelan be, karpa handi bat atonduko da txosna-gunean, eguraldi txarretik babestu ahal izateko". Egun guztietan eukiko dogu zer ikusi eta zertaz gozau Derio-ko jaietan, baina lagun gehiago batzen dauen eguna San Isidro izango da, beharbada. "Gure aldetik herritarrak, koardrilak, alkarteak... animau gura doguz ahalik eta ekitaldi gehienetan parte hartzera, ahalik eta ondoen pasetera, egun guztietan kalera urtetera eta herria girotzera".

**Inmobiliaria
ETORKI**

Mungialde etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

**MARMOLGINTZA
GOYO**
SUKALDE-GAINEKOAK ORRARI HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 10-8 mabea
48160 Derio, Bizkaia
T.: 94 454 82 93 - Fax: 94 454 50 63

**KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA**

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56



Lainomendi dantzataldearen ekitaldia

Derioko **plazan** maiatzaren **14**ean **18:00**etan




Derio
Udaleko Kultura Saila




**Udondo
Ostetia**

★★

Mungialde etorbidea, 3
t: 94 656 49 09
www.pensionudondo.com



kirolak

dribbling sport

KIROL EKIPAMENDUAK
FUTBOLA - SASKIBALOA
ATLETISMOA - GIMNASIA
PSIKOMOTRIZITATEA - SAREAK
GARAUKURRAK - DOMINAK
KIROL OROKORRA

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
48160 - DERIO (Bizkaia)



ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Uribe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47



TXIMINTX
DERIOKO EUSKARA ALKARTEA

Jaietan be EUSKARA AHOAN!
Gozatu jaiak euskaraz!



Derio



OPTICA MODERNA

Erdiko kalea, 4
48160 Derio
Tel.: 94 454 37 99





Astikene Industriadeguna
Beresi, 23 - C Blokea
48160, DERIO - Bizkaia

Telefonoa:
94 454 06 52
688 68 53 39 (Raúl Negrete)

Faxa:
94 454 06 53

astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com

agrojardín Astikene

Nekazaritza eta lorezaintzarako
tresneria saldu eta konpontzen dugu




WI-FI
COM. GRATIS

ZIRIKADA JATETXEA

www.zirikadaderio.com
94 454 50 45
Gaztelumendi Plaza, 1
48160 Derio

Miniatura-gotorlekuak

Gutariko askok zuhaitz baten gainean etxetxua izateko amesa euki dogu, gaztetxuak ginala. Gurasoengandik eta ingurutik urruntzeko miniatura-aterpe bat, geure-geurea izango zana, eta ez beste inorena. Atzerriko telesaioetako protagonistak bai zoriondu-nak zirala! Amesa egia bihurtu geinke orain, Eduardo Gómez lezamarraren eskutik. Gotorleku txiki bat seme-alabentzat, edo, zergaitik ez, guretzat be bai.

t/a: Itxaso Marina

Eduardok Estatu Batuetatik ekarri dau ideia. Mueta honetako eraikuntzeki-ko jakin-mina orain dala bost urte biztu jakon, eta informazioa eta dokumenta-zinoa batzen hasi zan. "Pozua" zehartzera be animau zan eta halako proiektuetan dabilzan onenatariko bategaz ibili zan Estatu Batuetan, bere proiektuak aztertzen eta bere teknikak ikasten. "Zuhaitzetako etxeak beste herrialde batzuetan era profesionalen egiten baziran, geuk be berton egin geinkela pentsau genduan. Lehenengo proiektua geure etxean bertan egin genduan eta, ondoren, beste etxetxu bi eregi doguz. Enkargu asko jaso doguz".

Etxetxuak segurtasun-neurri zorrotzei jarraituz altzaten dira, ezbeharrak eta istripuak ekiditeko. Eduardok azaldutako-aren arabera, edozein muetatoko zuhaitz gainean egin daitekez, palmondoetan izan ezik, azala oso biguna dabelako. Aukerak be ugariak dira: zuhaitz txikia bada, eraikuntza bere inguruan egin daiteke, zuhaitz gainean pisurik ipini barik; oso zuhaitz handia bada, oster, gauza izango da etxetxuaren pisuari berak bakarrik eusteko; eta ertaina bada, posteak jarri leitekez lurrean, pisua zuhaitzaren eta posteen artean banatzeko. Gainera, etxetxuak neurrira egindakoak dira eta zuhaitz baten gainean ez eze zuhaitz biren,



hiruren, lauren... gainean be altzau leitekez. "Eraikuntza honeen ezaugarririk inportanteenak etxetxua zuhaitzari atxikiteko erabiltzen doguzan euskarri flotatzailak dira. Euskarriok era naturalean mugitzen eta hazten ixten deusie zuhaitzari. Egiturak ez dau esfortzurik jasan behar eta, era berean, ez deusio minik egiten zuhaitzari. Horretara, bada, egiturea iraunkorra izatea bermatzen da, baita zuhaitzaren bizitasuna eta edertasuna be".

Diseinuak be aukera zabala emoten deusku eta, besteak beste, umeentzako jolasgunea, txori-behatokia edo lagunakaz partekatzeko txoko txikia egin geinkez. "Pinuaren zura erabiltzen dogu eta tratamendu berezia emoten deusagu, etxetxua urteetan egoera onean mantenduko dala ziurtatzeko". Etxetxuaren neurriak zuhaitzaren tamainua kontuan hartuta erabagiko doguz, "hiru metro karrututik 12 metro karratura bitarteko egiturea izan leiteke". Etxetxuaren itxurea erosleraren gustuen eta nahien arabera atonduko da.

Erabat seguruak

Altuera dala-ta gurasoak kezkatuta egoten dira. Halanda be, nahikoa da etxetxua lurretik metro bat eta erdira edo metro bira altzatea. Umeek bost metroko altueran egongo balira moduan disfrutauko dabe, eta gurasoak nasaiaigo ibiliko dira. "Guztiz seguruak dira, eta hainbat erispide kontuan hartuta egiten doguz. Arriskua egon leiteken lekuetan, esate baterako, leiho finkoak jarten dira; eta al-



"Zuhaitz baten, biren, hiruren... gainean egin leitekez eta diseinuak be aukera zabala emoten deusku"

tuera gitxira dagozan etxetxueta, edegi leitekezanak". Eta oso sendoak dira. "Etxe-an dogunak ziklogenesi bi jasan dau, eta ez dau kalterik izan".

Zuhaitzeko etxea egiten aste bitik lau astera bitarteko denpora-tartea emoten dau Eduardok, beharraren zailtasunaren eta eguraldiaren arabera. Eta prezioa be

beharraren arabera da, "plataformak balio dauen 2.000 eurotik aurrera". Egitura desmontagarria da, ez dau argi edo uraren hornidurarik, eta altzetako ez da baimenik behar.

Zuhaitzen gainean etxetxuak ikustea ez da ohikoa gure lurraldeetan, baina Eduardo baikorra da eta ez dau zalantzarik bere proiektuaren arrakastaren inguruan. "Zuhaitza lorategiko elementurik politena bihurtzeko proposamena egiten dogu. Eta etxetxua jostailua da, landua, diseinuzkoa, neurria egindakoa, eta berezia bere diseinuagaitik eta kokapenagaitik. Jakin-mina sortu dau".

Informazio gehiago:
www.casitasenarboles.com.

GOXO-GOXO LOHITZUN
dirretasoldaz zehelk
Ogle egutero
Postalek enkargatuz

Garaiketa: 776
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

LOTERIA LEZAMA

BONOLOTOA
LOTERIA PRIMITIBOA
1-X-2
SARITZARRA
EUROMILIOAK

GABONETAKO ETA ERREGETAKO
LOTERIEN ERRESERBAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TABERNENTZAT, ETAB

ARITXALDE, 159 • 48196 LEZAMA (BIZKAIA) • TELEFONOA/FAX: 94 455 64 87

LEJARRENE JATETXEA
Garaiketa auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 65 46

Nire Autoocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 696 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

POXPOLIN
OPARIAK ETA ARROPA

94 556 72 25

ARALAR, 4
DERIO

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERIKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefona 94 454 07 98
Fax 94 454 14 12

Mungaiako etorbidea, 25
48100 DERIO

bildutxorierrri

aurkezpen
ekitaldia

maiatzak **1** DERIO
Udal Kiroldegian
17:00



bildutxorierrri



loiu sondika



derio zamudio



lezama larrabetzu



bildutxorierrri





Argazkiak: Urko Lasarte eta Aner Mentxaka



Euskalakariak gara

Korrika 17k gure bailara zeharkatu zuen apirilaren 16an. Euskararen lekukoa eskuz esku pasatu zen Larrabetzutik Erandiora. Haren atzean, milaka euskalakari, tipi-tapa



elekma
LARRATZORREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TOSKAK

lehenengo markak • lehenak onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Teknari etorbidea, 25-3 N • 48160 Ibañeta
T: 944 539 232
www.elekma.es

TURREGOITI
JATETXEA

Laurietza etorbidea, 27
48160 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteauregoiti.com

Peñaketa
Esterika

94 455 81 44
Anguloen 2, beheia Larrabetzu-Bizkaia



sarrerren salmenta

944 510 310
www.bbk.es

bbk

SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:
TXARTELEDEGIAN
Edozein ekintza hasi baino
ordu bat lehenago

BFA DFB

SONDIKAKO KULTUR ETXEA
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)
Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

LO MEJOR DE JOHNNY MELVILLE
Munduko clown hoberena!
Gazte eta nagusiak
Maiatzaren 7an, 20:00etan
Prezioa: 8 €

BUUU!
Yllana taldea
Ikuskizun dibertigarria
familia osoarentzat
Maiatzaren 29an, 17:00etan
-12 urte: 3 €
+12 urte: 5 €

RIO

(AG) 96'
Maiatzaren 1ean, 17:00etan

SOY EL NUMERO CUATRO

110'
Maiatzaren 1ean, 19:30ean

HOP

(AG)
Maiatzaren 6an, 18:15ean
Maiatzaren 8an, 17:00etan

CODIGO FUENTE

Maiatzaren 8an, 19:30ean

EL OSO YOGUI

(AG)
Maiatzaren 14an, 18:00etan
Maiatzaren 15ean, 17:00etan

PERDONA PERO QUIERO CASARME CONTIGO

Maiatzaren 14an, 20:30ean
Maiatzaren 15ean, 19:30ean

ARTHUR 3: LA GUERRA DE DOS MUNDOS

(AG)
Maiatzaren 21ean, 18:00etan
Maiatzaren 22an, 17:00etan

THE COMPANY MEN

Maiatzaren 21ean, 20:30ean
Maiatzaren 22an, 19:30ean

PIRATAS DEL CARIBE: EN MAREAS MISTERIOSAS

(AG) estrenaldia
Maiatzaren 27an, 18:15ean
Maiatzaren 28an, 18:00etan eta 20:30ean
Maiatzaren 29an, 20:00etan

ZINEA

+12 urte: 4 € -12 urte: 2,5 € Estrenaldia: 4 €

*oharra: produktorearen behar-izanen arabera programazioak aldatuak jasan ditzake

Poeta hilen kluba

DERIOKO LITERATURA TAILERRA

Askori gustatzen zaie irakurtzea, baina sarritan zaila da zaletasun berbera duten beste lagunak topatzea. Derion irakurle eta idazleen topagunea sortu zuten duela bost urte, eta bertan lehenengo pausuak ematen dira literaturan.

t/a: Gaizka Eguskiza

"O, kapitaina, nire kapitaina!" esaten zioten ikasleek Robin Williamsek jokatu-tako literatura irakasleari, 1989ko *Poeta hilen kluba* filmean. Pelikula hartan maisuak liluratuta uzten zituen ikastetxe kontserbadore eta zorrotz baten ikasleak poesia eta bizitzari buruzko solasaldietan. Derioko Udalak ere kluba sortu zuen, eta asteazken arratsaldero 10-15 lagun biltzen dira irakurri, idatzi eta oro har literaturarako zaletasunaz elkarrekin gozatze-ko. Lehen liburutegian batzen baziren ere, orain Kultur Birika areto berrian egiten dute tailerra.

Derioko taldeko "kapitaina" Iñigo Larroque da. Bere esanetan, ikastarora etortzen direnek interesa dute literaturan, bai oso sarritan irakurtzen dutelako, bai idazten dutelako. Baina tailerraren helburua

ez da idazleak sortzea, "lantegi bat izango bagina moduan", parte-hartzaileen jarra kritikoa bultzatzea baino. "Ni batez ere gogoia helarazten saiatzen naiz. Nahi duena, idazlea izan dadila; nire aldetik, problemarik ez, baina tailerrean ez dut ikasgai magistralik ematen. Literaturara hurbiltzeko lehen pausua da, besterik ez".

"Hasieran datozenek ez dakite zehatz-mehatz zer topatuko duten: jokoak egongo diren, irakurketak, idazlanak..." Eta egia esan, denetarik dago. Tailerra bi zatitan dago banatuta normalean. Lehenengoan, irakurmene da nagusia. "Liburu bat irakurtzen dugu hilean eta horren gainean hitz egiten dugu; bestela, nik egileren baten zatitxoa irakurtzen diet eta horren inguruan egiten dugu berba". Bigarren zatian, idazmenak hartzen du lekukoa, eta ikasleek eurek idatzi behar dute zer-bait. "Nahi duenak ozenki irakurtzeko



aukera du eta denon artean komentatzen dugu". Ikasleek idatzitakoa plazaratzen dute urte amaieran *Huellas* liburuan.

Talde anitza

Irakurtzeak idazteak beste garrantzi du literaturan, eta hori jakinarazi die Iñigok ikasleei. "Irakasleak gehiago irakurtzeko deia zabaldu zigun eta horri esker, hobeto idazten dugu gaur egun", esan digu Fernando ikasleak. Harekin batera,

URAS
Estetika eta masajea
Aita Pabí Ugalde, 14 behea
Tel.: 94 455 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragotti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
 Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Oguiza
Hortz Klinika
Kirurgia eta implanteak
Ortodontzia
Estetika eta hortzak zuzitzea
Protesi finko eta mugikorak
Hortzolen tratamenduak
Odontologia kontserbadorea
Garbitasuna eta prebentzioa
haur-tratamendua
konponketak
Angleri enparantza, 1 • 48195 LARRABETZU • Telefonoa: 944558890


Miguel Angel Lekue, garraiolaria
Larrabetzu
656 786 744 94 455 80 20



*“Tailerraren helburua
ez da idazleak sortzea,
parte-hartzaileen
jarrera kritikoa
bultzatzea baino”*

poz-pozik gabiltza”. Bikoteak bigarren aldiz eman du izena ikastaroan aurren.

“Idatzi eta irakurri bakarka egiten dugu eta batzuetan zaila da zaletasun horrekin bat egiten duen bateren bat topatzea. Eta hori ikastaroan dugu. Norberaren lanari buruz elkarri egiten dizkiogu kritikak eta, horrela, pausoz pauso, gauza asko ikasten dugu”, dio Iñigok. “Oso giro polita sortu da taldean: irakaslea jatorra da, ez dugu gauzak ozenki esateko edo proposamenak plazaratzeko beldurrik, elkarri laguntzen diogu...”, aitatu du Fernandok.

Liburuak dira ikastaroaren funtsezko osagarriak, noski, baina ez bakarrik. Izan ere, batzuetan zine-foruma ere egin dute Gurea Aretoan. Literatura abiapuntutzat hartuta, irteerak egitea edo arte-erakusketak ikustera joatea ere pentsatu dute inoiz. Beste proiektu bat tailerra euskaraz ematea da, baina momentuz egitasmoa baino ez da. *Poeta hilen kluba* filmeko irakasleak bizitzaz gozatzeko esaten zien ikasleei; Derioko lagunek ere primeran pasatzen dute, eta inoiz aspertzen badira, libururen bat izango dute eskura.

lagun-talde anitza biltzen da tailerrean literaturaz mintzatzeko: emakumezkoak, gizonezkoak, jubilatutakoak, gazteak, etxekoandreak, abokatuak, txorierritarak, kanpokoak.... Gaiei dagokien ere, oso anitza da ikastaroa: poesia, prosa, klasikoak, garaikideak.... Ikasleek egileen ezberdinen berri izaten dute, besteak beste Shakespeare, Nurakami, Unamuno, Chéjov, Cabrera Infante, Juan Ramón Jiménez edo Kirmen Uribe. Normalean Iñigok pro-

posatzen ditu liburuak, baina behin baino gehiagotan ikasleek ere iradokizunak zabaltzen dituzte.

“Etortzen dena, gelditu egiten da, ikasle zintzoak garelako eta ondo pasatzen dugulako”, dio Fernandok. Adibide haietako bat Oihana da. “Amak irakurtzera etorri nahi izan zuen, eta laguntzeko esan zidan. Hasiera batean txarto pasatu genuen idazteko ohiturarik ez genuelako, baina gero hobeto ibili ginen, eta orain

BAR RAFI
ESPEZIALTATEA: PINTXOAK
Rafael García Tejero
Oiz Kalea, 5 T: 94 406 08 08
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) Mobila: 607 406 613

BITXITEGIA - ERLOJU-DENDA
Ruben
Lehendakari Leizaola Plaza, 5 - Tel.: 94 452 14 49
Zamudio (Bizkaia)

Kitchen sukaldeak
Bertoko sukaldeak, kalitate oneko sukaldeak
ERAKUSKETA
SALMENTA
INSTALAZIOAK
ARMAIRUAK, SUKALDE ETA BAINUGELAKO ALTZARIAK
Tel.: 94 656 85 69 Txorierriko etorbidea, 9
Faxa: 94 656 85 70 Artesa erakina
kitchensukaldeak@euskalnet.net 48160 Derio (Bizkaia)

GAMINIZ
JATETXEA
Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com
Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" N
www.gaminiz.com



Euskal gramatika, sarean

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Institutuak Sareko Euskal Gramatika (SEG) egitasmoa prestau dau eta www.ehu.es/seg webgunean jarri dau eskuragarri. Proiektu barritzaile honen lehen urratsak orain dala hiru urte egin ziran.

Sustatzaileek azaldutakoaren arabera, SEG egitasmoak baditu berezitasun bi. Alde batetik, gramatika digitala da eta ez dau, beraz, gramatika arrunten itxura: gramatika liburuetan testuakaz batera ez dira erabiltzen Interneten ohi-koak diran ediziorako tresnak; esate baterako, argazkiak, irudiak edo barneko nahiz kanpoko estekak (hainbat hizkuntzakoak). Tresnok guztiok agirian dira SEGn. Bestetik, gaiak kontuan hartzen badira, gramatika arrunta baino gehiago dala esan leiteke, ezohiko gaiak be tratatzen ditualako. Halan, gramatikariek behar-rean erabiltzen dituen materialak

eskaintzen ditu: testuak, hiztegiak, hitzen erabilerak, euskalkien ganeko arauak... Hareek guztiok modu autonomoan kontsultau leitekez. Baina bestelako materiala be ipinten dau erabiltzaileen eskura: besteak beste, hizkuntzaren jabekuntzea, prozesamendua, hizkuntzen arteko kalkoak eta zalantzak argitzeko aukerea.

Bizia eta dinamikoa

SEG egitasmoan honako atal honeek dagoz: hiztegia, morfosintaxia, euskerea eta gizakia, euskerea eta gizarte, hizkuntzalaritza aplikatua, fonetika eta

fonologia, euskerearen historia eta zailantzen txokoa. Atalok autonomia daukie eta, ondorioz, erabiltzaileek zuzenean kontsultau leikie hiztegi bat, edo zelan erabiltzen dituen berbak idazleek eta kazetariek. *Goenkale* saioan egiten dan euskerearen erabilera be jaso da aplikazioan.

Euskera modernoa, gaur egungoa, batu da Sareko Euskal Gramatikan. Hiztegiaren atalean, adibidez, 2000. urtetik aurrera idatzitako testuak baino ez dira kontuan hartu. Guztira, 25 milioi berba bildu dira egitasmoan.

Proiektu bizia eta dinamikoa da eta eten barik elikatuko da. Halan, datozen hilebeteetan eta urteetan materiala sartzen jarraituko da. Arduradunen esanetan, gramatika baino "Hizkuntzaren Entziklopedia" emoten dau egitasmoak, eta lagungarria izango da urteak pasa ahala hizkuntzeak izaten dituan aldaketaz ohartzeko, eta XXI. mendeko ahozko euskerea hobeto ezagutzeko.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

EAJ-PNVk Txorierriko udaletarako hautagaiak aurkeztu dauz



Ezkerretik eskumara: Igotz Lopez (EAJ-PNVko alkategaia Zamudion), Maria Luisa Mezo (alkategai jeltzalea Larrabetzun), Lander Aiarza (Derioko zerrendaburu jeltzalea), Joseba Goikouria (Erandioko EAJ-PNVren zerrendaburu), Jose Luis Bilbao (Bizkaiko Ahalduen Nagusirako hautagai jeltzalea), Andoni Ortuzar (Bizkaiko Buru Batzarreko presidentea), Ana Madariaga (Batzar Nagusien presidenterako hautagai jeltzalea), Gorka Carro (EAJ-PNVko alkategaia Sondikan), Alaitz Etxeandia (Lezamako zerrendaburu jeltzalea) eta Bizente Arteagoitia (EAJ-PNVren alkategaia Loiu).

Apirilaren 8an, EAJ-PNVk hurrengo udal eta foru hauteskundeetarako hautagaien aurkezpena egin eban. Ekitaldia Astrabuduako Josu Murueta plazan izan zan eta Txorierriko udaletarako hautagaiez gain, Jose Luis Bilbao, Bizkaiko Ahalduen Nagusirako EAJ-PNVren hautagaia eta Ana Madariaga, Batzar Nagusietako presidentetarako hautagaia, bertan izan ziran.

Hirurehun persona inguru batu ziren alkategai bakotxaren proiektuak ezagutzeko asmoz.

Maria Luisa Mezok, Larrabetzuko alkategaia, herri planeamendu barriak herritarrei eskaintzen jakezan zerbitzuak handitzea ahalbideratuko dauela dino, mediku kontsulta barria, aparkamendu gehiago eta erreka bideratzea. Garraio moduak aniztea bere lehentasunetako bat izango dala adierazo dau.

Bestetik, Igotz Lopezek, Zamudioko alkategaia, gobernu lanean aurreikus-

penei eta kudeaketa ekonomiko eraginkorrari garrantzia emon deutse. Bizi dugun garaiei aurre egiteko, administrazio publikoek austeritatea presente euki behar dabe euren gestinoan. Zamudion ikuspegi honegaz gobernatu da, horregaitik, orain gaitasuna daukagu, zamudioztarren eskaerei aurre egiteko, etxebizitza, enpleo eta aparkamendu arloetan.

Modu berean, Lander Aiarzak, Derioko alkategaia, merkataritzaren aldeko apustua eginda dauka. Herriko merkataritza bultzatzeko ekimenak aurrera aterako dauz, berau sendotu eta herria merkataritza zentro irekia bihurtu daiten. Maila lokalean sustapen ekonomikoa egiteko modu bat da hau eta gainera negozioak herriko bizitzan inplikatze modua.

Gorka Carrok be, Sondikako alkategaia, gazteentzako politikak egitea etorkizuna bermatzeko erabakiak hartzea dala, bai etxebizitza, bai enpleoa, bai aisi aukerak lantzeko asmoa dauka, modu

parte-hartzailean, gazteentzako ekimenak gazteak diseinatu gura dauz eta.

Bizente Arteagoitiak, Loiu alkategaia, herritarrentzako garraioak hobetzea dauka erronka nagusitzat, horretarako Bizkaiko Foru Aldundiagaz behar beste hartu emon izango dauz.

Alaitz Etxeandiak, Lezamako alkategaia, gizarte zibilaren garrantziaz jardundu, alkarteen eta herritarren eretxiak behar doguz bere biztanleen zerbitzura dagoan herriak aurrera egiteko.

Azkenik, Erandioko Alkategaia dan Joseba Goikouria, bere lehentasuna pertsonen problemek erantzutea izango dala adierazo eban. Enpresak erakarteko proiektuak, etxebizitza babestuak eta gizarte ekintza arloko ekimenak proposatu ebazan.

Ilusino handiz aurkezten dira alkategaia, proiektu adierazgarriak daukiez esku artean beti Txorierriko biztanleen bizi kalidadea hobetzeko asmoagaz.

EUSKAL ASTEA ZAMUDION 2011

Euskera loratuz

maiatzak

4

eguztena

20:00: HITZALDIA
Japoniar gizartea
euskeraz, **CHIEKO
HATA**ren eskutik
Dorretxean,
lehenengo pisuan

maiatzak

6

barikua

19:00: **PIRRITX, PORROTX
ETA MARIMOTOTS,**
"Ongi etorri Pupu eta Lore"
Kiroldegian

maiatzak

8

domeka

9:00: **XII. MENDI IBILALDIA**
"Zamudiotik Bizkargira" Plazatik
hasita. Bueltan Goikoelexaldetik
Bizkaibusek 15:00etan urtengo dau
Arroeta mendi taldeagaz
batera antolatuta

11:00: **BIZKARGIRA UMEEKAZ**
Kotxeetan joango gara,
Zamudioko Eleixalde
parkinetik, Goikoelexaldera,
eta handik, oinez Bizkargira

maiatzak

7

zapatua

11:00: **IBILALDI DIDAKTIKOA UMEENTZAT**
Zamudio, zure herria ezagutu. Gaia: Errekak
Dorretxetik hasita

20:30: **KANTALDIA
NIKO ETXART**
Dorretxean

maiatzak

2

astelehena

19:30: **XII. Euskal kanta**
ikastaroaren 1. saioa
ITSASO ARRIETAren eskutik
Dorretxean

maiatzak

5

eguna

20:00: **KANTALDIA
AKUTUKA** musika taldea
Dorretxean
Bertoko taldeagaz
batera antolatuta

LAGATZU
ZAMUDIOKO
EUSKERA
ALKARTEA
ANTOLATZAILEA

Zamudio
Udala
BABESLEA ETA
LAGUNTZAILEA

Asko estudieu eta gitxi ikasi

t: Juan Luis Goikoetxea / i: Aritz Albaizar

–Egun on Alazne!
–Halan ekarri Luki!
–Kafesnea beti **lez?**
–Bai mesedez.
–Bazkide asko lortu dituzu, Alazne,
Baserri Antzokirako?
–Ehun baino gehiago eta mila baino
gitxiago.

–Aiko erantzun zuhurra.
–Badakizu Luki zenbakien kontua
zelan dan. Guk eskolan olagarroari hama-
rratz esaten geuntsan eta euki zortzi dau-
kaz.
–Zenbakiak izan beharko leukie O-
ñatiko Andoni Salamero olerkariak idatzia
lakoak. Dino –buruz nabil- gustatuko litxa-
kiola, bi eta bi lau izanik bat soberan gera-
tzea, soberako hori maiteari oparitzeko.

–Polita Luki!
–Pasetan dana da, neskato, gazte den-
poran sarritan egiten dala matematike-
tan-eta, asko **estudieu** eta gutxi ikasi.
–Aitak esaten eustan: mundu ho-
netan, Alaznetxu, irakatsi-irakatsi bizitzak
egiten jona. Neuk be lehengoan ekin egin
neutsan merkatari bati Baserri Antzokiko
kide egin daiten, eta ia ordubeteko **txapa**
emoten euki ostean dinost: *Dirurik gozoe-
na beste batek utzia, ederrena norberak ira-
bazia.*

–Eta zuk zeuk zer erantzun zeuntsan?
–Baserri Antzokiak irabazita dan-da-
nok irabazten dogula; diruari eta koleste-
roldunari ibiltzea komenidu jakela.
–Erantzun ona Alazne. Edozelan **bere**,
esperientziarik, hau da, bizitzako eskolarik
ez daukien ikasleei gertatzen jake Arrieta-
ko kantak dakarrena:

Apalazio zalduna

Apalazio zalduna
hiru erregeen eguna
zotzak eta paluak
estudianteen kontuak
estudianteei ostu deutsez
hiru oilanda katuak
haren hazurrak txupau ezinik
hareek darabilez saltuak eta brinkoak.

–Ondo bizi Luki!
–Bueno, bizi!



(*) Ahozko moduan esaten dana, letra baltzez doa



T. 94 447 8330
www.aisiahoteles.com



T. 94 454 0574
www.pandpderio.com

Paquete especial GOLF GASTRONÓMICO
Incluye: 1 circuito relax, comida con menú
especial y un green fee para campo de 9
hoyos.

45€

por persona - IVA incluido



LEHIAKETA

Bi lagunentzako tratamendua:
TXOKOLATEZKO ESTALDURA

**Zein elkarte
aurkeztuko da
Sondikan ?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehen:

–Telefonoz: 94 452 34 47

–e-mailez: aikortxori@aikor.com

Aurreko erantzuna:

Gazte Eguna

Irabazlea:

Idoia Aurrekoetxea

Etxeko sukaldaritza

Makailao-budina



Maite Lekerika, sukaldaria

Osagaiak (lau lagunentzat):

- 500 g makailao (txikitua eta gazatua)
- Kipula eder bat (txikitua)
- 4 berakatz-atal (txikituak)
- Piper berde handi bat (txikitua)
- Pikillo piper bi
- Tomate-zurrusta bat
- 6 arrautza
- 100 ml esne
- 250 ml esne-gain
- Orioa
- Gatza

Prestateko erea:

Zartagin baten orio-zurrustea bota eta kipulea eta berakatzak han ipiniko doguz erregosten, su ez-tian. Eginda dagozanean, piper berdea gehituko dogu. Zartaginari estalgia jarri eta surtan 10 minutuan eukiko dogu. Barazkiak noz-behinka eragingo doguz eta 10 minutuak pasaten diranean, surtatik kenduko doguz.

Bestalde, ontzi baten honeek irabiau-ko doguz: esnea, esne-gaina, arrautzak eta gatz apur bat. Ondoren, makailaoa, pikillo piperrak, tomate-zurrusta, baraz-

Saltsea egiteko:

- Kipula eder bat (txikitua)
- 4 berakatz-atal (txikituak)
- 4 pikillo piper
- Orioa
- Gatza
- Ur apur bat, makailaoa beratzen izan dogun azkena

Saltsea:

Kipulea eta berakatzak orio apur baten erregosiko doguz, su ez-tian. Pikillo piperrak eta gatz apur bat gehituko doguz eta bizpahiru minutuan eukiko doguz egosten. Ur apur bat bota eta eginda dagoanean, irabiau egingo dogu.

kiak eta gatz apur bat botako doguz. Osagaiak koilara bategaz nahastuko doguz.

Molde bat aldeztu aurretik eukiko dogu prestatuta. Moldea gurinaz igurtzita e-gongo da, eta uruneztuta. Orea molde horretara botako dogu. Labea 180 gradutan berotuko dogu, eta budina ordubete inguruan izango dogu bertan, Maria bainuan egosten. Hotzitzen itxiko dogu.

Budina moldetik atera eta 12 xerretan ebagiko dogu. Xerrak laban epelduko doguz eta, zerbitzatzeko orduan, xerra bi ipiniko doguz plater bakoitzean. Budina saltsa apur bategaz lagunduko dogu.

GUEDAN
servicios deportivos, s.a
Jesusen Ehotza plaza, 5 - Euzkalduna er. 7, 1. dptza
48001 Bilbo Tel: 94 439 80 10 - Faxa: 94 439 87 12

ZAMUDIOKO UDAL KIROLDEGIA
Tel: 94 452 21 28 - Faxa: 94 452 30 74

HORTZ KLINIKA

Idoia Zubietta

Osuari-jentzia & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ORTUDORATZIA-ESTETIKOA
HABIRAK ZINPLETIAK

Dr. Arechua kalea, 11 - 1. esk. • 48011 BILBO • Telefonoa: 94 441 63 22
Urte plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Telefonoa: 94 452 13 70

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, beheko
ZAMUDIO
Tel: 94 452 28 18

Ercoreca
supermerkatuak

Elikaduran adituak



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Kide / Jean Bordato
- Izan ote da? / Xabier Soubelet
- Andra egin zara / Yolanda Elorriaga
- Argilunak begietan / Lourdes Unzueta
- Iturri-aldeko nere leihotik / Daniela Albizu

HAUR ETA GAZTEENTZAT

- 5 hartz jostari / Krestin M. Shuld
- Saguzarrak egunez / Jokin Mitxelena
- Ezin dut eta zer? / Uxue Alberdi
- Sorginkerien liburua / Aingeru Epaltza
- Emakume sugearen misterioa / Patxi Zubizarreta

MUSIKA

- Ongi etorri Pupu eta Lore / Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- Gure negu hotzak / Izate
- Gezurra ez da egia / Imuntzo eta Be-loki
- Mugitu / Haitzama
- Itxaropenaren ertzean / Jare

Sudokua

7	5				9	2		3
9			1				4	6
6	4			3				
			2	9				
	3							
					5	7	6	4
	6			1				
		9	5				3	
				6	3			

5	8	1	3	6	9	4	2	7
8	1	9	5	2	4	6	3	7
3	6	5	7	1	8	4	9	2
1	9	2	3	8	5	7	6	4
5	3	6	4	7	1	9	2	8
4	8	7	2	9	6	3	5	1
6	4	1	8	3	2	5	7	9
9	2	3	1	5	7	8	4	6
7	5	8	6	4	9	2	1	3

ERREKA **ONDORIO**
ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

ZAMUDIOKO ESTANKOA

Tabakoak, tinbrea eta opariak



Tallera kalea, 5 ZAMUDIO
Tfnoa: 94 452 12 73

Garmendia ardoak



Pinea pol., P-3B
ZAMUDIO
Tél./Faxa: 94 452 00 49

Antzerkia eta filmak

Zamudio

- > *Maribel y la extraña familia*. Maiatzaren 21ean, 19:00etan, Gurea Aretoan. Sutondoan elkartaren eskutik.

Erakusketak

Derio

- > Aeromodelismo. Maiatzaren 21ean, 17:00etatik 19:00etara, Seminarioan. Subyke elkartaren eskutik.
- > Gimnasia erritmikoaren erakustaldia. Maiatzaren 28an, 19:00etan, kiroldegian. Miragarri taldearen eskutik.

Irteerak

Sondika

- > Tipi-tapa osasunez. Maiatzaren 8an, 10:00etan, tren-geltokian.

Zamudio

- > Bizkargi Eguna. Maiatzaren 8an, 09:00etan, Sabino Arana plazan. Arroeta taldeak antolatua.
- > Kostaldea. Maiatzaren 21ean, 08:00etan, Arroeta taldearen egoitzan.
- > Ur mugak. Maiatzaren 28an, 08:00etan, Arroeta taldearen egoitzan.

Jaiak

Txorierri

- > San Isidro, Loion, Zamudion, Lezaman eta Larrabetzun. Meza, idi-probak, asto-probak, bazkaria... Maiatzaren 15ean.

Kirola eta txapelketak

Sondika

- > Areto-futbol Txapelketaren finalaurrekoak. Maiatzaren 1ean, 10:00etan.
- > Areto-futbol Txapelketaren finala. Maiatzaren 8an, 10:00etan.
- > Fitness Txapelketa (promesak). Maiatzaren 28an, 18:00etan, Goronda beko kiroldegian.

Derio

- > Dardo Euskadiko Txapelketa. Maiatzaren 1ean, egun osoan, frontoian.
- > Briska Txapelketa. Maiatzaren 2an, 3an eta 4an, 17:00etan, Larrabarri base-rrian. Sutondoan elkarrekin antolatua.
- > Hiruko areto-futbola (gizonak). Maiatzaren 19an, 19:00etan, kiroldegian. Pozgarri FST taldeak antolatua.
- > Eskupilota. Maiatzaren 20an, 17:00etan, frontoian.
- > Two ball. Maiatzaren 28an, 18:00etan, kiroldegian. Derio Saski Taldeak antolatua.
- > Xake Nazioarteko Opena. Maiatzaren 29an, 10:00etan, kiroldegian. Derio Xake Taldeak antolatua.



Zamudio

- > Arku-tiroa. Maiatzaren 15ean, 09:00etan, Errege bidean. Gezi-bide klubak antolatua.
- > Plater-tiroa. Maiatzaren 28an, 10:00etan, Teknologia Parkeko tiro zelaian. Txorierri Ehiza eta Arrantza elkarrekin antolatua.

Tailerrak

Zamudio

- > Komunikazio afektiboa. Izena ematea: maiatzaren 13ra arte.
- > Argiak, kolorea, akzioa! Maiatzaren 14an, 11:30ean, liburutegian. Bost urte-tik gorakoentzat.



Larrabetzu

- > Internet. Izena ematea: maiatzaren 4tik 11ra, liburutegian.

Bestelakoak

Sondika

- > Udalekuetan izena ematea: maiatzaren 2tik 6ra, 19:00etatik 21:00etara, Kultur Etxean.

Derio

- > Tokiko Agenda 21. Maiatzaren 25ean, 19:30ean, Larrabarri baserrian.
- > Dantzaldia. Maiatzaren 29an, 18:00etatik 20:30era, kiroldegian. Nagusien elkarrekin antolatua.

Zamudio

- > Herriko argazkiak batzea, udaletxean eta liburutegian. IZAE argazkilaritza taldeak antolatua.
- > Kamara Korralaren kontzertua, Abanton. Maiatzaren 28an, 19:00etan.

Larrabetzu

- > Udan programa izena ematea: maiatzaren 23tik 27ra, liburutegian.

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagotti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

ESTILISTA
NEKA-MUTLEN
ELEAPAINDEGIA
EVA ARDINES

AmAr

Asteartea - Ostirala: 9etatik-15etara
Larunbata: 9etatik-14etara

Uribe Plaza, 1 - Behe 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 04 19: (Aurreko txanda)

amaz
taberna

leizea lehendakaria 7 (Zamudio)

BAR BIDE-BI

Goizeko 5etatik
aurrera zabalik

Zamudio

Aukeratu zurea!

Gosari bereziak

Telefonoa: 94 452 20 48
Leizaola Lehendakaria plaza, 3

CAFE-BAR
BIDE-GORRI

Era askotako pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia

Txinbo Kalea, 9
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tel. 94 452 26 75

CARRICERIAS
TXORIERRI

José Antonio Sáez

TXAPA ETA LABE-PINTURA

Torreanagotti Pol. Vial sur C-15, Nave B5-1 48160 Zamudio BIZKAIA
T/Fax: 94 452 29 03



*SUPERMAN, BATMAN, SPIDERMAN...Superheroi hauen garaia pasa zen.
Orain, gurean...EGA agiria duen superheroi bakarraren garaia heldu da... XABINAITOR!!!
8 urtetik 158 urte bitartekoentzako antzerki lana...WAZEMANK-eko lan-taldearen eskutik.
Geure buruaz barre egitea bezalakorik ez dagoelako...*

Sondikako kultur etxean

Maiatzak 4 19:00

Sarrerak 2€

Sarrerak noiz eta non :

- Apirilaren 4tik 19ra Mankomunitatean, liburutegietan eta euskaltegietan.
- Apirilaren 26tik maiatzaren 3ra Mankomunitatean.
- Ordubete lehenago leihatilan.



MURTENETXE, S.A.

Kontzesionarioa | Banatzailea | Zerbitzu Teknikoa

 **Grillo**



 **Grillo**



 **Grillo**



 **Grillo**



Kubota



Kubota



Kubota



Sogean Pol., 34. pab
Lauaxeta Olerkari
48100 Mungia (Bizkaia)
Tel. eta faxa: 94 674 83 62

Aretxalde auzoa, 105
48196 Lezama (Bizkaia)
Tel: 94 455 62 66
Faxa: 94 455 65 66

Autonomía, 57
48012 Bilbao (Bizkaia)
Tel: 94 427 29 18
Faxa: 94 427 29 18